

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

Eibarko Udalaren Errebal Proiektua

Proyecto Errebal del Ayuntamiento de Eibar





AURKIBIDEA/ÍNDICE

0. LABURDURAK.....	5
I. SARRERA.....	7
II. ADMINISTRAZIOKO JARDUERAK	7
II.1. DESAFEKTAZIOA	7
II.2. LURSAILA BESTERENTZEA.....	8
II.3. PROIEKTUA GAUZATZEA.....	11
II.4. BESTERENTZEKO KONTRATUA SUNTSIARAZTEA	12
II.5. LURSAILA ITZULTZEA.....	13
III. AUZI PROZESUAK.....	14
IV. ONDOKO BESTE JARDUERA BATZUK	15
V. ONDORIOAK	15
ALEGAZIOAK	19
BOTO PARTIKULARRA	49
0. ABREVIATURAS	59
I. INTRODUCCIÓN.....	61
II. ACTUACIONES ADMINISTRATIVAS	61
II.1. DESAFECTACIÓN	61
II.2. ENAJENACIÓN DE LA PARCELA.....	62
II.3. EJECUCIÓN DEL PROYECTO	65
II.4. RESOLUCIÓN DEL CONTRATO DE ENAJENACIÓN.....	67
II.5. REVERSIÓN DE LA PARCELA.....	68
III. CONTENCIOSOS.....	68
IV. OTRAS ACTUACIONES POSTERIORES.....	69
V. CONCLUSIONES.....	70
ALEGACIONES	73
VOTO PARTICULAR	103





0. LABURDURAK

6/19999 FD	6/1999 Foru Dekretua, urtarrilaren 26koa, hiri izaerako ondasun higiezinaren katastro balioa eta egiaztatutako balioa merkatuko batez besteko prezioen bidez zehazteko prozedura onesten duena.
APKLTB	2/2000 Legegintzako Errege-Dekretua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratu Legearen Testu Bategina.
APOL	33/2003 Legea, azaroaren 3koa, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoa
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala
EAB	Enpresen Aldi baterako Batura
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena
GAO	Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala
HAPO	Hiri Antolaketako Plan Orokorra
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia
LHL	2/2006 Legea, ekainaren 30ekoa, lurzoruari eta hirigintzari buruzkoa.
TAOL	7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki Araubidearen Oinarriak Arautzen dituenak.
TEOA	1372/1986 Errege Dekretua, ekainaren 13koa, Toki Erakundearen Ondasunen Erregelamendua.





I. SARRERA

HKEEk Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontuen Batzordeak hala eskatuta, Lanerako Planean Eibarko Udalaren Errebal Proiektuaren fiskalizazio lana barne hartu du.

Lanaren xedea Eibarko Udalak Errebaleko lursailari dagokionez gauzatu dituen jarduera guztiei ezargarria zaien legezkontasuna bete dela fiskalizatzea da; honek besarkatzen ditu hirigintza arloan, kontratazio, aurrekontu eta diru-bilketakoan hartutako erabakiak. Gainera, eragiketa horiek 2007tik 2010era bitarteko Aurrekontu Likidazio eta Kontu Orokorrean izan duten eragin ekonomikoa ere aztertu du lanak. Berebat, txosten hau idatzi dugun datan fiskalizazio-gai diren jardueren aurka jarritako errekurtsio eta eragiketa horietan esku hartu zuten pertsona fisikoen aurka aurkeztutako zigor-salaketen egoeraren berri ematen da. Lanaren zabalak ez du eskualdatze-gai izan den lursailaren baloraziorik barne hartu.

II. ADMINISTRAZIOKO JARDUERAK

II.1. DESAFEKTAZIOA

2006ko maiatzaren 8an Eibarko Udalaren Udalbatzak hasiera batean Errebaleko lursailaren herri-jabari izaera kentzeko espedientea abiaraztea onetsi zuen; lursaila 3.526,25 m² zabal da eta bertan hainbat higiezin jasotzen ditu (azoka eta musika eskola); helburua lursailaren eskualdatzea bideratzea zen, ondoren merkataritza-gune bat eraiki eta udalari elikagai merkaturako prestatutako alde bat eta aparkaleku-solairu bat entregatzea derrigorrezkoa izanik. Hilabeteko epean jendaurrean jarri ondoren eta alegaziorik aurkeztu ez zela, 2006ko maiatzaren 17ko GAOn behin-betiko onetsi zen. Desafektazioa HAPO indarrean sartzeari meneratzen zitzaion eta behin-betiko 2006ko abenduaren 12an onetsi zen. Nolanahi den ere, HAPOk lursail horretan espazio bat gordetzea aurreikusten du etorkizunean azoka eta sotoan aparkaleku publikoa kokatzeko.

Ondasun horien desafektazioa justifikatu zen orduko azoka eraldatzeko beharrarekin, merkataritzako jarduera honek azken urteetan eragin zuen interes falta zela-eta. Hainbat azterketa egin ondoren, Udalak udal azokaren jarduera indartzeko irtenbiderik egokiena merkataritza gune bat eraikitzea zela iritzi zion, udal azoka ez ezik, elikagai lehorren gune bat eta jatetxe eta aisialdiko instalazioetarako gune bat jasoko zituena; horrekin batera, egoiliarrentzako aparkalekua, txandakako beste aparkaleku bat eta merkataritza jarduerarentzat berarentzat beharrezkoa den beste bat barne hartuko zituen.

II.2. LURSAILA BESTERENTZEA

Helburu horiek erdiesteko, Udalak negozio juridikoan balizko figura hauek balio-neurtu zituen:

1. Gune berria eraikitzeko lursaila emakidan uztea, obra publikoko emakida figura baliatuta, eta azoka zerbitzuaren kontzesioduna bere gain hartzea.
2. Kontzesiodunari gunearen jabetza zati bat eskualdatzea.
3. Lursaila ondare eragiketa modura saltzea, esleipen hartzailea egokitutako gune bat entregatzera derrigortuz, azoka eta aparkaleku publikoa egiteko.

Aukera guztiak aztertu ondoren, Udalak azkenaren alde egin zuen eta hautaketa justifikatu zuen esanez 40 eta 50 urte bitarteko emakidan azoka zerbitzuaren kudeaketa bermatu ahal izango zuela.

Lursailaren balorazio ekonomikoa

Lehiaketako pleguetan zehaztutako lizitazio tipoa 641.303 euroan finkatu zen (BEZ sartu gabe) gehi Udalari etorkizunean azoka eta aparkaleku publikorako bi lokalen entrega, 3,6 milioi euroren zenbatekoan balioztatuak (BEZ sartu gabe), besterentze prezioak guztira 4,2 milioi euroren prezioa eginez, udal zerbitzu teknikoek 2006ko abenduaren 13an egindako txostenean kalkulaturako lurzoruaren balioaren pareko; horretarako, 6/1999 FDn ezarritako prozeduraren arabera hondar metodoa baliatu zuten, ondoko xehapenaren arabera:

	Euroak milakotan
KONTZEPTUA	ZENBATEKOA
Supermerkatuko solairua	4.420
Behe solairuko merkataritza gunea	5.123
Goi solairuetako merkataritza gunea.....	8.573
Azoka (*).....	960
Aparkaleku publikoa (*).....	2.592
Egoiliarren aparkalekua.....	3.240
MERKATU BALIOA	24.908
Eraistek eta eraginpeko zerbitzuak	500
Hondeaketa eta eustea	2.000
Eraikuntza kostuak	6.651
Gastu orokorrak eta obra kostuen industri mozkina (% 19)	1.739
Behin-behineko azoka lekuz aldatzeko gastuak.....	1.000
Soldata teknikoak eta baimenak	1.000
Beste zenbait	500
KOSTUAK (B)	13.390
LURZORUAREN JASANARAZPEN BALIOA (C=A/1,38-B)	4.659
LURZORUAREN BALIOA (C*0,90 aprobetxamendua)	4.193

(*) Obrak amaitzean Udalari entregatu beharreko ondasunak

Lursaila besterentzeko lehiaketa publikoa

Eibarko Udalaren Udalbatzak 2007ko urtarrilaren 29an Errebalen kokatutako lursaila besterentzeko administrazio kontratu bereziaren deialdi publikoa onartu zuen, lehiaketa prozedura baliatuta merkataritza gune bat eraikitzeko zena. Lehiaketa iragarkiak 2007ko otsailaren 3ko BOEn argitaratu ziren, 2007ko otsailaren 7ko GAOn eta idatzizko bi komunikabidetan. Lehiatzaileei eskaintzak aurkezteko bi hilabete eman zitzaizkien.

Pleguetan jasotako esleipen irizpideak eta aurreikusitako haztapenak honako hauek izan ziren:

- Proposamen ekonomikoa: aurreikusitako gehieneko puntuazioa, 25 puntu, eskaintza ekonomiko altuena aurkez zezan lehiatzaileari emango zitzaizkionak eta gainerako proposamenen puntuazioa eskuratuko litzateke 25 puntuak aurkeztutako eskaintzaren zatidurarekin eta eskaintza altuenarekin biderkatuta.
- Obraren aurreproiektua eta behin-behineko azoka birkokatzeko proposamena: aurreikusitako gehiengo puntuazioa 65 puntu Irizpide horren baitan aurreikusitako jardueraren memoria argigarria balioztatuko litzateke, behin-behineko azoka tokiz aldatzeko proposamena, instalakuntza, material eta kalitateen ezaugarriak deskribatuz, eraikinaren eskema bidezko definizioa (planoak, aurrekontua, egikaritza programa, Plan Orokorrari egokitzen zaiolako justifikazioa, azokatarako lokalaren definizioa eta aparkaleku publikoaren definizioa).
- Merkataritza gunea kudeatzeko moldea: aurreikusitako gehiengo puntuazioa 10 puntu Proposamen zehatzak balioztatuko dira eta merkataritza lokalak eskura jartzeko dauden molde juridikoak azaldu, interesa dute enpresekin eskuratutako kokaleku konpromisoak justifikatu, proposatutako moldearen iraunkortasuna eta bezeroak erakartzeko ez ezik, eskualdean gunea sustatzeko baliatuko liratekeen marketin politikak ere arrazoituz.

2007ko maiatzaren 11n Kontratazio Mahaiak dokumentazio juridikoa abiarazi eta kalifikatzeari ekin zion eta aurkeztutako 4 lehiatzaileak onartu zituen prozedurarako; 2007ko apirilaren 17an proposamen tekniko eta ekonomikoak abiarazi ziren eta udaleko zerbitzu teknikoei eskuratu balorazio txostena egin zezaten. 2007ko maiatzaren 3an Kontratazio Mahaiak balorazio txostena onartu zuen eta kontratazio atalari SPV Eibar Boulevard, SL merkataritza sozietateak (aurrerantzean, esleipenduna) aurkeztutako proposamenaren aldeko esleipena egin zezan proposatzea erabaki zuen, ondoko balorazioari jarraiki:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Euroak milakotan

LEHIATZAILEA	ESKAINZA	IRIZPIDEEN PUNTUAZIOA			
		PREZIOA	AURREPROIEKTUA	MODELOA	GUZTIRA
SPV Eibar Boulevard, SL.....	650	18,76	61	8	87,76
UTE Construcciones Moyua, S./Proyectos de Desarrollo Comercial Garapen, SA	850	25	54	3,5	82,50
Construcciones Murias, SA.....	700	20,59	33	5,5	59,09
Inmobiliaria Bitxor, SL.....	750	22,06	35	1	58,06

2007ko maiatzaren 22ko Udalbatzak lursailaren salerosketa esleitu zuen eta 2007ko uztailaren 27an jaso zen eskrituran, esleipen hartzaileak bi berme aurkeztu ondoren, guztira 4,8 milioi eurorenak, azoka eta aparkaleku publikoa etorkizunean entregatzeko konpromisoari aurre egiteko eta eskudirutan 650.000 euro, gehi esleipen zenbatekoari zegokion BEZ ordaindu ondoren. Udalak 2007ko ekitaldian aurrekontuko sarrera modura eskudirutan jasotako zenbatekoa erregistratu zuen eta ordena kontuetan jasotako bermea; gainera, ondare kontabilitatean "Ibilgetu ez-materiala" idazpuruan etorkizunean obra egiteko eskubideari alta eman zion, 3,6 milioi euroren zenbatekoan. Eragiketa honek osotasunean hartuta, 3,5 milioi euroren mozkin eragin zuen, besterentze prezioaren eta emandako lursailaren eta eraitsi beharreko eraikinen kontularitzako balio garbiaren arteko alde modura.

Jabetza Erregistratzaileak, izena emateko unean, eragiketa ondasun truke modura kalifikatu zuen.

Besterentze lehiaketaren esleipen hartzailea

Esleipen hartzailea 2006ko azaroaren 2ko eskritura bitartez eratu zen, 4.000 euroren kapital sozialarekin. Xede soziala ondasun higiezin salerosketa eta horien zuzeneko edo errentamendu bitarteko ustiaketa egitea da; bulego, etxebizitza, industri tailer, merkataritza edo aisialdiko gune edo parke, hotel edo bestelako zeinahi ekipamendu komunitario edo sozialak abian jarri, eraiki, errentan eman edo beste edozein modutara ustiatzeko jarduerak bideratzea eta sustatzea da.

Lehiaketa publikoaren pleguek lehiatzaileen kaudimen ekonomiko eta finantzarioko betekizun modura finantza erakunderen baten egiaztagiria aurkeztea soilik eskatzen zuten, lehiatzaileak kontratuaren prezioa ordaindu eta horrek eragin zitzan gastuei aurre egiteko adinako kaudimena zuela egiaztatuko zuena.

Esleipen hartzaileak finantza erakunde baten ziurtagiria aurkeztu zuen, datarik gabea, lehiatzaileak eta haren bazkideek kontratuaren konpromisoari aurre egiteko behar hainbateko kaudimena zutela ondorioztatzen zuena; ez zen, baina, ziurtagiri horrekin lehiatzailearen kaudimen indibiduala behar hainbat ziurtatu.

II.3 PROIEKTUA GAUZATZEA

Esleipen hartzaileak kontratua gauzatzeko 35 hilabeteko epea zehaztu zuen, hiru fasetan banatuak:

- Aldez aurreko fasea: 9 hilabeteko epea, behin salerosketa kontratuaren eskritura publikoa ematen denetik, obra gauzatzeko lizentzia eskuratu arte.
- Egikaritze fasea: 25 hilabete, obra egiteko lizentzia eskuratzen denetik aurrera obra jaso bitartera arte kontaktuta.
- Ondoko fasea: Hilabete, Udalak obra egikaritzeko adostasun akta egiten duen unetik harik eta behin-behineko azoka merkataritza gunean kokagune berrira eramaten den arte.

Aldez aurreko fasean epeen betetze datak ondoko hauek dira; fase hau soilik zati batean egikaritu da, amaiera epea 2008ko maiatzaren 27an zuena:

	DATA
Behin-behineko azoka instalatzeko lizentzia eskea	05-09-07
Behin-behineko azoka instalatzeko lizentzia ematea	21-09-07
Azoka eta musika eskola eraisteko baimen eskea	09-10-07
Azoka eta musika eskola eraisteko baimen ematea	16-11-07
Xehetasunezko Azterlanaren behin-betiko onespina	25-02-08
Urbanizazio lana Egiteko Programaren behin-betiko onespina.....	14-03-08
Kontzertazio Hitzarmena onestea	14-03-08
Urbanizazio Proiektua onestea	18-04-08
Hasierako repartzelazio proiektuaren onespina	23-05-08
Repartzelazio proiektuaren behin-betiko onespina	12-06-09
Repartzelazio Proiektua inskribatzea	-
Egikaritze Proiektua aurkeztea	-
Obra egiteko lizentzia eskaera	-

A.I 137.01 Errebal Jarduera Integratuaren Repartzelazio Proiektua hasiera batean Udalaren Gobernu Batzordeak 2008ko maiatzaren 23an onartu zuen eta 2008ko maiatzaren 30eko GAOn eman zen argitara. Aurkeztu ziren alegazioak aztertu ondoren, 2008ko azaroaren 21eko Udalaren Gobernu Batzordeak Repartzelazio Proiektua behin-betiko onesteari uko egin zion eta lursailaren jabeari Udalak egindako zuzenketa eta aldaketak jasoko zituen Testu Bategina aurkezteko eskatu zitzaion.

Repartzelazio Proiektuaren Testu Bateginean lursailari karga hauek ezarri zitzaizkion:

- Behin merkataritza gunea amaitu ondoren, azokatarako lokalaren eta aparkaleku publikotarako lokalaren jabetza Eibarko Udalari entregatzeko obligazioa, karga eta ekipamenduetatik libre, lehiaketako pleguetan adierazitako ezaugarri eta ekipamenduekin ez ezik, aipatutako aldeei dagokien orubearen jabetzan partaidetza alikuotarekin batera.



- Finantza erakunde baten aldeko hipoteka, gehienez 29,2 milioi euroren gehiengo zenbatekora arte, esleipen hartzaileak kontratua finantzatzeko eskatutako mailegu baten berme modura, 2007ko uztailaren 27an emandako eskrituraren indarrez.

Hirigintzako aprobetxamenduaren % 10aren nahitaezko lagapena monetarizatzea erabaki zen, 465.923 euroren balioa eman zitzaiona (lurzoruaren eragin balioaren % 10: ikus II.2); ordainketa obligazioa esleipendunari 2009ko uztailaren 3an jakinarazi zitzaion. Borondatezko aldia amaitu aurrean, merkataritza sozietateak ordainketa geroratzeko 2 eskari egin zituen, 2009ko irailaren 30era arte lehenengoa eta 2009ko abenduaren 31ra arte bigarrena.

Repartzelazio Proiektuaren behin-betiko onespina 2009ko ekainaren 12an egin zen eta 2009ko ekainaren 24an eman zen argitara GAOn.

Repartzelazio Proiektuaren Testu Bateginaren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu zen 2009ko uztailaren 7an, besteak beste, alderdi hauek alegatuz:

- Lurzoruaren hirigintzako eraikigarritasunaren % 10ari zegokion hirigintzako aprobetxamenduaren nahitaezko lagapena monetarizatzekeko justifikaziorik eza, lursail modura jaso beharrean, LHLren 27. artikulua agintzen duen moduan.
- Testu Bateginaren aldaketa erabatekoa hasiera batean onetsitako Repartzelazio Proiektuarekiko, hipoteka karga barne hartzearekin.

2010eko ekainaren 18ko Tokiko Udal Gobernuak Repartzelazio Proiektua indargabe uztea erabaki zuen eta horren ondorioz, Epaitegiak aipatutako Proiektuaren behin-betiko onespinen aurka abiarazitako prozedura amaitzea erabaki zuen, errekurritutako uziak prozesutik kanpo bete zirelako.

2009ko ekitaldiaren Aurrekontu Likidazioan Repartzelazio Proiektua onestearekin sortutako hirigintzako aprobetxamendua "Egiazko inbertsioen besterentzea" kapituluko sarrera modura kontabilizatu zen, ekitaldi horretako abenduaren 31n kobratzeke zegoela, zenbatekoaren % 100 zalantzazko kobragarritasunagatik zuzkitu zelarik. 2010eko ekitaldian, besterentze kontratua suntsiarazi ondoren, Udalak diru-sarrera horiek baja eman ditu.

II.4. BESTERENTZEKO KONTRATUA SUNTSIARAZTEA

Proiektua egikaritzeko lehenengo fasea, 9 hilabetetan egitekoa zena, ez zen osatu eta 20,5 hilabete behar izan ziren Repartzelazio Proiektua behin-betiko onetsi zen arte. Atzeraldi honen ondorioz, finantza erakunde batek esleipendunari emandako kredituan aurrez ezarritako baldintzak ezin bete izan ziren. Finantza erakundeak 2009ko uztailaren 29an enpresa esleipendunari jakinarazi zion finantzaketa bertan behera utziko zuela finantzaketaren lehenengo zatirako finkatutako epea betetzeko ezintasuna zela eta, izan ere, urtebetetik gorako atzeraldia zeramaten eta artean obretarako baimena eskuratu gabe zeukaten.

Esleipendunak 2009ko azaroaren 18an adostasunez kontratua bertan behera uztea eskatu zuen, 2007ko uztailaren 27an izenpetutako kredituari aurre egitea ezinezkoa zitzaiolako.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Horrez gain, egikaritza proiektua ez zitzaion Udalari aurkeztu, esleipendunaren eta lizitazio prozesuan aurkeztutako aurreproiektuaren egileen arteko liskarren ondorioz. 2008ko azaroaren 12an erredakzio-enpresak kontratua bertan behera uzteko notario-jakinarazpena aurkeztu zuen; ordea, fakturatutako kontua ordaindu gabe zegoen, ordainsarien % 20aren pareko zena, 399.330 euroren zenbatekoa, alegia. Lehen Auzialdiko Epaitegiaren Auto bitartez, 401.330 euroren aurreneurritzko enbargoa egiteko zuhurtziazko neurria hartu zen (339.330 euro printzipalarenak, eta 62.000 euro kontratuaren kalte-ordain gisara), demandatutako merkataritza sozietateak Eibarko Udalaren gainean duen kredituaren kontura, itzul-gai den lursailari dagokionez. 2010eko ekitaldian, Udalak Epaitegiko gordailuen kontuan zehaztutako kopurua gordailatu zuen, lursaila itzultzeko prezioetik kendu zena. (Ikus II.5)

2010eko urtarrilaren 25eko Osokoak adostasunez kontratua baliogabetzea erabaki zuen, APKLTBren 112.4 artikuluari jarraiki, kontratugileari leporagarria zitzaiokeen baliogabetze kausarik ez egoteagatik eta kontratuari eustea desegoki egiten zuten interes publikoko arrazoiak zeudelako. Baliogabetzea honako faktore hauek eragin zuten:

- Mundu mailako krisi ekonomikoaren etorrerak merkataritza gunearen sustapenean eragina izan zuen eta horrek arazo larriak azalerarazi zituen, aurreikusitako inbertsioa finantzatzeko banketxe batekin izenpetutako maileguaren kontratua gauzatzea eragotzi zutenak.
- Udalbatzak Repartzelazio Proiektua zalantzan jarri izateak, administrazioarekiko auzi-errekurtsua eraginez.
- Arkitekto-erredaktoreek aurkeztutako proiektuarekin sortutako hainbat arazok zalantzak eragiten zizkion esleipendunari egituraren bideragarritasunari zegokionez eta ondorioz, alde bien arteko kontratua baliogabe utzi zen.

2010eko urtarrilaren 27an eskrituratu zen kontratua baliogabe uzteak honako ondorio hauek ekarri ditu: lursaila berreskuratzea; esleipendunari gordailatutako abalak itzultzea, kontratuaren esleipen eta sektorearen urbanizazioarekin loturikoak; hirigintzako aprobetxamenduaren % 10a ordaintzeko obligazioa eta zorpetutako gainkargu eta interesak baliogabe uztea; eta kontratua baliogabetzetik erator zitezkeen kalte-ordain edo zigorrei uko egitea.

II.5. LURSAILA ITZULTZEA

Adostasunez kontratua baliogabetu zenean eta Pleguaren 17. klausulak aurreikusitakoaren aurka, zeinak agintzen zuen kontratua baliogabetzeak ez zuela lursaila itzultzea eragingo, alde biek Udalak lursailaren jabetza karga, zerga eta errentarrietatik libre berreskuratzea adostu zuten, esleipendunak egindako aldaketa fisikoekin, 1,1 milioi euroren prezioan (650.000 euro lursailaren prezio kontzeptuan, esleipendunak ordaindu zuen kopuru bera, eta 488.133 euro, egindako obren kontzeptuan, Udalaren onurarako direnak); honekin guztiarekin esleipen hartzailea libre gelditzen da esleipenaren ondorioz hartu zituen konpromiso guztietatik. Hona hemen Udalak ordaindutako zenbatekoan jasotako kontzeptu esanguratsuenen xehapena, lursailari balioa gehitu dioten obren ordainetan:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

	Euroak
	ZENBATEKOA
Musika Eskola eta Azoka eraistea.....	158.659
Eraldaketa gune berriaren instalakuntza.....	122.016
Azpiegiturak tokiz aldatzea.....	157.302

Udalak lursailaren jabetza berreskuratzeko hitzarmenak ondasunen beste salerosketa negozio juridiko bat eragin du, Jabetza Erregistroan jaso den moduan.

Lursailaren salerosketa gastuari aurre egiteko, 2009ko abenduaren 28ko Osokoak aurrekontu aldaketa bat onartu zuen, “Inbertsio errealak” kapituluko beste kontu-sail batzuetatik eratorritako kreditu transferentzia baliatuta. Kreditu hori 2010eko ekitaldiari txertatu zitzaion eta 1,1 milioi euroren gastua ekitaldi horretan kontabilizatu zen. Ondarean 2010eko ekitaldian lursailari alta eman zaio “Ibilgetu materiala” idazpuruan, 4,7 milioi euroren zenbatekoan.

III. AUZI PROZESUAK

Aurrez aipatutako auzi prozesuaz gain, honako hauek ere gertatu dira:

Adostasunez kontratua baliogabetzea

Adostasunez kontratua baliogabetzeko administrazioko ekintzaren aurka -2010eko urtarrilaren 25eko Udalbatzan onartutakoa- administrazioarekiko 2 auzi-errekurtso aurkeztu ziren Administrazioarekiko Auzien Donostiako 2. Epaitegian, zuzenbideari ez zitzaiola egokitzen adierazteko eskatuz; horretarako argudiatu zuten Eibarko Udalak ez zuela behar hainbat egiaztatu eta justifikatu kontratugileari leporagarri zitzaion baliogabetze kausarik ez zegoela eta kontratuari eustea alferreko eta desegokia zela guztien intereserako.

Epaitegiak 2013ko apirilaren 11ko epai bitartez errekurtsu hauetako bat atzera bota du, errekurtsogileak ez duelako egiaztatu merkataritza sozietateak kontratutik eratorritako obligazioak ez dituela bete. Epai horrek dio Udalak adostasunez kontratua desegiteko alegatutako arrazoiak ezin aurreikusi izan zirela kontratua esleitu zen datan eta komenigarria dela guztien intereserako desegitea.

Nolanahi den ere, Txosten hau idatzi den datan ebazteko dago merkataritza sozietateak aurkeztutako beste administrazioarekiko auzi errekurtsua, esleipendunarekin 2007ko uztailaren 31n negozioarako lokala etorkizunean alokatzeko kontratua izenpetu zuena. Enpresa horrek Administrazioarekiko Auzi Epaitegiari eskatu zion Jabetza Erregistroan interesatuak adostasunez kontratua desegitearen aurka jarritako administrazioarekiko auzi-errekurtsoaren aurreneurritzko idatzoharra egin zezala. 2011ko ekainaren 30eko auto bidez, zuhurtzia-neurria ukatu zen eta gerora, ukazio horren aurka jarritako apelazio-errekurtsua ezetsi zuen EHAJNk 2011ko azaroaren 9an.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

Repartzelazio Proiektua indargabe uztea

Esleipendunarekin etorkizunean negozio lokal bat alokatzeko kontratua izenpetua zuen, 2010eko ekainaren 18ko Tokiko Gobernu Batzarrak Repartzelazio Proiektua bertan behera uzteko erabakiaren ondoren, administrazioarekiko auzietako epaitegiari zuhurtziazko neurriak bideratzeko eskatu zion, erabaki hori eten eta administrazioak repartzelazio proiektua aldatu, ordeztu edo baliogabe uzteko zeinahi ekintza gauzatzea debekatuko ziona. Epaitegi horren 2010eko azaroaren 8ko Auto bidez, eskatutako zuhurtziazko neurriei uko egin zitzaion, gerora EHJANek 2011ko azaroaren 29ko Auto bidez baitetsi zuena, administrazioarekiko auzi-errekurtsorik ez zegoelako. Horren ondoren, demandatzaileak administrazioarekiko auzietako epaitegiaren aurrean errekurtsioa aurkeztu du Repartzelazio Proiektua ondorioz gabe uzteko ekintzaren aurka.

Aldez aurreko eginbideak

2010eko uztailaren 6an Eibarko lehen auzialdiko epaitegiaren aurrean administrazioaren prebrikazio eta ondasunak bidegabe erabiltzearen ustezko delituagatik salaketa aurkeztu zen hainbat zinegotzi eta udal teknikarien aurka, lursaila besterendu eta berriz itzultzeko akordioetan esku hartu zutenak, kontratua adostasunez desegin ondoren. Gipuzkoako Probintzia Auzitegiaren fiskaltzak, 2010eko irailaren 10eko Auto bidez ustezko delituengatik aldez aurreko eginbideak abiarazteko erabakia hartu zuen.

IV. GEROKO BESTE ZENBAIT JARDUERA

Alkatetzaren 2010eko otsailaren 15eko Dekretu bitartez lursaila udalari itzuli ondoren, Errebal lursail horretan aparkalekuak egiteko obrak esleitu ziren, publizitaterik gabeko prozedura negoziatu bidez, 152.000 euroren zenbatekoan. Obra horiek 2010eko apirilaren 14an hartu ziren eta 152.444 euroren zenbatekoan ordaindu. 2010eko apirilaren 12ko GAO n aparkaleku mugatuko udal arautegiaren behin-betiko onespina argitaratu zen, hasiera batean 2010eko otsailaren 22ko Osokoak onartutakoa.

Txosten hau idatzi dugun datan, lursail horretan ez da bestelako ekintzarik bideratu.

V. ONDORIOAK

III. atalean aipatutako auzietatik erator litezkeen epaien ondorioak alde batera utzita, gure lanean zehar azaleratu diren alderdi esanguratsuenak ondoko hauek dira:

1. APOLen 8 eta 138.1 artikuluetan adierazitakoari jarraiki, espedientean ez da behar bezala egiaztatu ondasuna besterentzea denik lortu asmo diren helburu publikoak eskuratzeko molde juridiko egokia; izan ere, badira arautegi orokorrean helburu berberak eskura zitzaketen bestelako moldeak, Lurraren Udal Ondarean orubea bajaran eman beharrik izan gabe.
2. Lursaila desafektatzeko akordioak, 2006ko maiatzaren 8ko Udaltzak onartutakoak, APOLen 69. artikulua urratzen du, horren guztizko erabilera zerbitzu publikorako erabiltzen jarraitu baita. HAPOk lursailaren hainbat gune jabari publikorako bereizi



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

zituen, gune batzuk azoka eta aparkaleku publikotarako gorde zituelako, eta honenbestez, ez zen egin asmo zen bereizketa gauzatu. Horren ondorioz, Udalak TAOLen 80.1 artikulua urratu du, jabari publikoko ondasunak kendutako hirugarrenei besterentzea eta jabetza aldatzea eragozten duena.

3. Udalak lursaila saltzeko administrazio kontratu bereziaren figura baliatuta lehiaketa publikoaren prozedura erabili du. Jabetzaren erregistratzaileak, bere aldetik, eragiketa truke modura kalifikatu du. Berebat, espediente administratiboa aztertzetik eratorri da kontratuaren xede modura jasotakoa egiaz obra kontratuarena dela eta honenbestez, ez zela modu egokian balioztatu kostua eta ez zitzaien lehiatzaileei inongo enpresa sailkapenik eskatu.
4. Enpresa esleipenduna lehiaketa publikoa deitu baino 3 hilabete lehenago eratu zen eta honek kaudimen betekizun modura finantza erakunde baten ziurtagiria aurkeztu zuen, datarik gabea, zeinetan lehiatzaileak eta kide zituen merkataritza sozietateek kontratutik eratorritako konpromisoei aurre egiteko kaudimen behar hainbatekoa zutela ondorioztatzen zen; ez zen, ordea, ziurtagiri horretan esleipendunaren bakarkako kaudimena egiaztatu. Administrazioak ez dezake kide parte-hartzaileen kaudimena kalifikatu, merkataritza sozietate horiek ez direlako lehia prozesura aurkeztu. Kaudimen hori kalifikatzerik izango zen soil-soilik prozesuan horretarako propio eraturako EABB baten bitartez aurkeztu izan balitz, APKLTBren 24. artikulua agintzen duen moduan. Gainera, finantza erakunde baten ziurtagiria aurkeztea kaudimena egiaztatzeko pleguetan eskatutako betekizun bakarra izan zen. Berebat, APKLTBren 16. artikulua ez dela urratzen egia bada ere, kaudimena bide hori soilik baliatuta egiaztatzen uzten baitu, artikulua horrek kaudimena egiaztatzeko beste bide batzuk ere gaitzen ditu, urteko kontuak eta negozio zifra globala eta enpresak azken 3 ekitaldietan egindako obra, zuzkidura, zerbitzu edo lanak esaterako. Kontratuaren bolumen ekonomikoa aintzat hartuta, gomendagarria zatekeen administrazioak kaudimen ekonomiko eta finantzarioa egiaztatzeko pleguetan jasotakoak baino betekizun zorrotzagoak eskatu izan balitu.
5. Adostasunez kontratua desegiteko ekintzaren aurka jarritako 2 administrazioarekiko auzi-errekurtsoei dagokienez, 2013ko apirilaren 11n ezespren epaia ebatzi da horietako baten aurka, errekurtsogileak ez baitu egiaztatu kontratugileari leporatzen zaiona. Nolanahi ere, txosten hau idatzi dugun datan, ebazteko dago administrazioarekiko beste auzi-errekurtsoa. Aztertutako dokumentazioa ikusirik Epaitegi honek uste du proiektua geldiarazi eta ondoren ebaztea eragin duten zioak honako hauek izan direla:
 - Esleipendunari finantza erakunde batek finantzaketa kendu izana, bien artean izenpetutako mailegu kontratuan adostutako epeak ez betetzeagatik.
 - Enpresa esleipendunaren eta exekuzio proiektuaren erredaktoreen arteko kontratua suntsitzea, proiektuaren egiturazko bideragarritasunari buruzko desadostasunengatik.
 - Mundu mailako krisi ekonomikoaren etorrera, finantza, eraikuntza eta higiezinaren sektoreak bereziki zigortu zituena.



APKLTBren 98. artikulua agintzen duen moduan, kontratuaren exekuzioa kontratugilearen gain eta galorde egingo da, ezinbesteko kasuetan izan ezik.

6. Herritarren interesak alferreko eta desegoki egiten du kontratuari eustea, aho batez egindako desegite prozesuan jasotakoaren arabera; HKEEk uste du lehiaketaren pleguetan hasiera batean jasotako aurreikuspenak aurkatzen dituela. Plegu horiek lursaila ez itzultzea aurreikusten zuten kontratugileari ezargarria zitzaion ez-betetzea gertatzen bazen eta aurreikusten zuten, aldiz, gordailatutako bermea bahitzea eta eskudirutan eskainitako kopurua atxikitzea.
7. Adostasunez kontratua desegiteko akordioan jasotako hitzarmenak, lursailaren jabetza Udalari itzultzekoak, ondasunen beste salerosketa negozio juridiko bat eragin du eta horretarako ondasuna tasatzeko adituen txostena eskatu behar zatekeen, nor bere gain hartutako kostua justifikatuko zuena; horrek TEOAren 11. artikulua urratzen du.





ALEGAZIOAK, EIBARKO UDALAREN "ERREBAL" PROIEKTUAREN INGURUAN HERRI-KONTUEN EUSKAL EPAITEGIAK EGINDAKO FISKALIZAZIOAREN EMAITZEI EGINDAKOAK.

ALEGAZIOAK:

I.- SARRERA OROKORRA.

Aurrenik, eta aldeaz aurretiko izaeraz, komenigarria deritzogu sarrera orokor batekin ekitea, sarrera horren ondoren alegazio-idatzi honen edukia izango dena argitzearen edo argitzeko helburuz.

Era horretan, Fiskalizazio Txostenaren "I. Introducción" atalean, hauxe da jasotzen dena:

"El TVCP, a petición del Pleno del Parlamento Vasco, ha incluido en su Plan de Trabajo la fiscalización del Proyecto Errebal del Ayuntamiento de Eibar.

El objetivo del trabajo es la fiscalización del cumplimiento de la legalidad aplicable a todas las actuaciones que el Ayuntamiento de Eibar ha llevado a cabo en relación con la parcela Errebal, que incluyen los acuerdos adoptados en materia urbanística, de contratación, presupuestaria y recaudatoria. Además, el trabajo comprende el análisis del efecto económico que dichas operaciones han tenido sobre la Liquidación Presupuestaria y la Cuenta General de los ejercicios 2007 a 2010."

Herri-kontuen Euskal Epaitegiak azaldutakoaren aurrean, azpimarratu behar duguna da, Herri-kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 zenbakiko Legearen 1. artikulua araberako, Epaitegi hori Euskadiko Autonomia Elkartaren berenezko eta Eusko Legebiltzarraren arteko menpeko ihardutze-sailtzat zehazten da.

Aldi berean hauxe gaineratzen da: Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, bere agintepideen eremuan, Euskal Herri-Alorreko ekonomia, dirubidetza eta kontaduritzak-ekintzapideen artarako gorenko ihardutze-sail izan eta Eusko Legebiltzarraren esku-ematez Autonomia-Elkartean ihardungo du.

Ondoren, aipatu berri den otsailaren 5eko 1/1998 Legearen 9. artikulua, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiarenak, hauxe ezartzen du: Euskal Herri-Alorra osatzen duten Izaikien ekonomia-dirubidetza-iharduna legeei egokitzen zaiela egiaztatzea du xede arakaketak.

Are gehiago, gaineratzen du baita "arakaketa hori, halaber, Euskal Herri-Alorra osatzen duten Izaikien ekonomia eta dirubidetza-ihardunaren eginkortasuna eta eraginkortasuna aztertzerako eta hori arrazoizkotzeko eta hobetzeko saloak egiteraino hedatuko da esandako izaiki guztiei edo batzuei buruz."

Azkenik, Testu Legal horren 10. artikulua, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, beste gaien artean, honako hauek arakatuko dituela ezartzen du:

- Euskal herri-alorrak egindako akuraketak.
- Euskal herri-alorraren ondarearen egoera eta aldakuntzak.



Hartara, aurreko lege-agindu horiek erakusten dute zein izan den Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari berak "Eibarko Udalaren Errebal Proiektua" izena ematen diona fiskalizatzen utzi izan dioten lege-jarraibidea.

Halaber, lege-agindu horiek une batean bertan ere ez diote uzten Herri-Kontuen Euskal Epaitegiari Eibarko Udalak hirigintza-alorrean hartu dituen akordioak edo erabakiak fiskalizatzen.

Hala da: udalerriek hirigintza-antolamenduan, kudeaketan, gauzapenean eta diziplinan dituzten eskumenak aitortuta daude Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 25.2 d) artikuluan, beti, Estatuko eta autonomia-erkidegoetako legedian ezarritako moduan.

Antolamendua batik bat honetan zehazten da:

- Planeamendu orokorra egiteko eta onartzeko prozeduretan -erakunde biren onespena dela medio- izaten duen esku-hartzean, aplikagarria den araudiak goragoko erakunde baten onspena exijitzen duenean (hain zuzen ere autonomia-erkidegoetan eskudunak diren organoen onspena).
- Prozeduron onespenean, aplikagarriak diren xedapenek beste administrazio baten esku-hartzerik ezartzen ez dutenean, eta,
- Garapenerako planeamenduaren onespenean, erkidego bakoitzaren legeriak ezarritako eran, eta horien osagarri edo ordezkoko legez 76ko LLeak eta horren garapenerako erregelamenduek dioten moduan.

Planeamenduaren kudeaketak eta gauzapenak, planeamenduko tresnek marraztutako hiri-eredu idealaren aplikazio praktikoa hartzen duten beraien gain. Horrela, lehendik dagoen egiazko errealitatea eta hirigintza-errealitatea eraldatu edo kontserbatu egiten du, planeamenduak ezarritakoaren arabera.

Hirigintza-diziplina legea bete egiten dela kontrolatzeko ahalmenean datza, eta partikularren ekintzak derrigorrezkoak diren lizentzien edo baimenen menpe jartzean.



Hortaz, lehen azaldu dugun moduan, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren otsailaren 5eko 1/1988 zenbakiko Legeak, une batean bertan ere ez du gaitzen organo hori fiskalizatutako erakundeen hirigintza-jarduketa fiskalizatzeko. Esan behar da gainera, hirigintza-jarduketa hori ez dela horregatik berraztertu ezina, berraztertzeke ahalmen hori, soil soilik, administrazioarekiko auzien ordenaren adituak diren organo judizialei dagokielako, ez beste inori.¹

Bigarrenik esan behar da aipatu den "Introducción" horrek ondokoa seinalatzen duela izendatuki:

“Asimismo, se informa sobre la situación a la fecha de realización de este Informe de los recursos interpuestos contra las actuaciones objeto de fiscalización y denuncias penales presentadas contra las personas físicas que participaron en dichas actuaciones. El alcance del trabajo no ha incluido la valoración de la parcela objeto de la transmisión.”

Hala da; III atalean, alegazio hauen xede den Fiskalizazio Txostenaren “Contenciosos” atalean, Herri-Kontuen Euskal Epaitegi horrek ondokoen existentzia azaltzen du:

- Eibarko Udalak, 2010eko urtarrilaren 25ean egindako udal osoko bilkuran, elkar adostasunez kontratua mozteko hartu zuen ebazpenaren kontra sartutako administrazioarekiko auzi errekurtsio bi (2).
- Administrazioarekiko auzi-errekurtsio bat (1), Eibarko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak birpartzelatze proiektua bertan behera uzteko hartutakoa (egitan, birpartzelatze-proiektuari dagokionez bi (2) izan ziren sartutako administrazioarekiko auzi-errekurtsioak, bata, 710/2009a, Donostia-San Sebastián-eko 3. zenbakiko Administrazioarekiko Auzien Epaitegiaren aurrean sartutakoa -962/2010 zenbakiko Auto bidez amaitu zena, birpartzelatze-proiektua objektuaren gabezia gaineratuagatik ezabatu zenean- eta bestea, 462/2011. zenbakiduna, Donostiako Administrazioarekiko Auzien 2. Epaitegian eramaten ari dena).
- Salaketa bat (1), administrazioaren ustezko prebarikazio delituagatik eta diru-publikoa bidegabe eralgitzeagatik.

Hortaz, 1978ko Espainiako Konstituzioak, edozein zuzenbide-estaturi datxekion ohiko botere banantzea eratzen du, eta bere 117.3 artikuluan, hitzez hitz, hauxe dio:

¹ 1. artikulua araber, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak eskumenen esparruan euskal sektore publikoaren ekonomia-finantza eta kontularitzako arribideen organo fiskalizatzaile goren izaera du eta Autonomia Erkidegoan gauzatuko ditu egitekoak, Eusko Legebiltzarrak eskuordetuta. Epaitegiaren kontrolak (2. artikulua) egiteko fiskalizatzailearen arribidean (3. artikulua) toki erakundeak besarkatzen ditu, Euskal Sektore Publikoa osatzen duten erakundeen jardura ekonomiko-finantzarioa antolamendu juridikoari egokitzen zaiola egiaztatzea helburu izanik. Zehatzago esanda, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, besteak beste (10. artikulua), Euskal Sektore Publikoaren ondarearen egoera eta egiten diren aldaketak fiskalizatuko ditu.



"3.- Era guztietako prozesuetan, jurisdikzio-ahalaren egikaritzea, epaituz eta epaiturikoa betearaziz, bakar-bakarrik dagokie legeek finkatutako epaitegi eta auzitegiei, legeok ezartzen dituzten eskumen- eta prozedura-arauekin bat etorriz."

Berdina dio Botere Judizialaren 6/1985 zenbakiko Lege Organikoaren 2.1. artikulua.

Eta are gehiago, Lege Organiko horren 8. artikulua, berariaz dioena hau da:

"Epaitegiek kontrolatzen dute erregelamenduak egiteko ahala eta administrazio-jardueraren legezotasuna; baita administrazioaren jardura horrek justifikatzen duten helburuei men egingo diela ere."

Alde horretatik, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak jakinda, ondo dakien moduan, fiskalizatu dituen gai horiei zuzen zuzenean eragiten dizkieten hainbat epai-prozedura daudela -bere Fiskalizazio txostenean berariaz agerrarazten duen bezala-, ez zukeen egin behar gai horiei buruzko edozein balorazio mota, gutxienez, harik eta prozedura horiei buruzko Epai irmoa eman arte.

Horrela ez jokatzek, alde batetik, botereen banaketaren printzipioaren urratze garbi bat dakar, botere legegilearen (Eusko Legebiltzarra) menpe dagoen organo batek, bakar-bakarrik eta legez Justizia Epaitegien esku dagoen gai batean esku hartzean.

Baina gainera, hurrenik esan behar dena da -alegazio-idatzi honen hurrengo ataletan zabalago eta sakonago garatuko dugun bezala-, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren jardura alde bakarreko horrek absurdo arriskutsu honetara eramanez gaitzakeela: jurisdikzio-organoren batek emandako Epai fiskalizazio-organoren bere irizpenean edo diktamenean (horrela gertatu da gainera) adierazitakoaren zeharo kontrakoa izatea, eta, horren ondorioz, erabateko nahaste egoera bat sortzea.

II.- ALEGAZIOAK TXOSTENAREN ONDORIOEI.

1.- Aurreneko ondorioari:

1.1.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

1.-No está debidamente acreditado en, el expediente, atendiendo a lo señalado en los artículos 8 y 138.1 de la LPAP, que la enajenación del bien sea la figura jurídica idónea para el logro de los fines públicos perseguidos, coexistiendo en la normativa general otras figuras que hubieran alcanzado los mismos objetivos sin la necesidad de proceder a la baja del solar en el Patrimonio Municipal del Suelo.

1.2.- Alegazioak.

Aurrenik, beharrezkoa ez ezik, derrigorrezkoa ere bada zehaztea Eibarko Udalak, Errebal kaleko 11.ean eta 13.ean kokatutako udal partzela besterenganatu edo saltzeko orduan, administrazio-espeditu oso bat tramitatu zuela eta espeditu horretan jasota daude gaiari zegozkion txostenak: Udal Arkitekto andreak egindakoa (partzela besterendu edo saltzeko Espediente Administratiboaren 1go. orritik 10. orriraino, orri biok barne), Udal Idazkari Nagusiak egindakoa (partzela besterendu edo saltzeko Espediente Administratiboaren 39.



orritik 46. orriraino, orri biok barne) eta Kontu-hartzaile jaunak egindakoa (partzela besterendu edo saltzeko Espediente Administratiboaren 48. eta 49. orriak).

Azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 8. artikulua, Administrazio Publikoen Ondareari buruzkoak, hau ezartzen du:

“8. artikulua.- Ondasunei eta ondare-eskubideei buruzko printzipioak.

1. Administrazio publikoek, ondasunak eta ondare-eskubideak kudeatzen eta administratzen dituztenean azpiko printzipio hauek bete behar dituzte:

- a) Eraginkortasuna eta ekonomia kudeatzerakoan.
- b) Eraginkortasuna eta errentagarritasuna ondasun eta eskubide horiek ustiatzerakoan.
- c) Publizitatea, gardentasuna, konkurrentzia eta objetibotasuna ondasun horiek erostean, ustiatzean eta besterenganatu edo saltzean.
- d) Ondasunak identifikatzea eta kontrolatzea inbentario edo erregistro egoki bidez.
- e) Administrazio publiko guztien arteko elkarlana eta koordinazioa, beraien ondasunen erabilera eta etekina optimizatu ahal izateko.

2. Edozein kasutan ere, ondare-ondasunen kudeaketak indarrean dauden politika publiko guztiak garatzen eta gauzatzen urgatzi behar du eta, bereziki, etxebizitza-politikagintzari lagundu behar dio, horretan eskudunak diren Administrazioekin koordinatuta.

Halaber, lehen aipatu den 33/2003 Lege horren 138.1 artikulua haxe dio:

"1.- Estatuko Administrazio Orokorraren ondarearenak diren ondasun higiezinak eta horien eskubideak saltzeko espedientea Estatuko Ondare Zuzendaritza Orokorrak instruituko du, bere ekimenez edo erosteko interesa duen alderdiak hala eskatuta, baldin eta ondasun edo eskubide hori ez dela beharrezkoa erabilera orokorrerako edo zerbitzu publikorako eta hori ez dela komeni ustiatzea baderitzo; beti ere, hori espedientean behar bezala justifikatuta. Prozedurari ekiteko erabakiak bere baitan eramango du besterengarri edo inorengarri deklarazioa."

Ikuspegi horretatik, Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamenduak, ekainaren 13ko 1372/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartutakoak, hainbat formula erabiltzen ditu ondasun horiek erabiltzeko, eta, era horretan, kapitulu oso bat dauka, V. Kapituluak, ondasunak besterenganatzea mintzagai eta hizpide bakar legez.

Bestalde, ekainaren 30eko 2/2006. legearen 116.4. artikulua, Euskadiko Lurzoruaren eta Hirigintzaren Legekoak, haxe dio hitzez hitz:

“4.- Udal lurzoru-ondare publikoei dagokienez, askatasunez besterendu ahal izango dira, lehiaketa publiko bidez edo trukatzeko bidez, hirigintza-plangintzak zuzkidura publikoetarako edo babes ofizialeko araubideren bati loturiko etxebizitzak eraikitzeke propio izendatu ez dituen ondasunak. Horrela jokatuta lortutako diru-sarrerak eta ondasunak, ordea, udal lurzoru-ondarerako erabiliko dira.”

Hortaz, azaldu dugun bezala, 2006ko abenduaren 26an, administrazio-espedientearen barruan, Eibarko Udaleko Idazkari Nagusi andreak, oinarritutako txosten oso bat egin zuen,



eta bertan, behar bezala justifikatzen da proposatutako besterenganatzea ondoko arrazoibideak emanda, oso-osorik transkribatuko ditugunak:

“2.- Besterenganatzeko edo saltzeko aukera. Udal ondasunei aplika dakiekeen araubide juridiko orokorra.

Udalaren beraren ondasun bat denez Udalak sal dezake, baina salmenta hori aplikatu behar zaion araubide juridikoaren arabera egin beharko du.

Gainera, ez da salmenta hutsa, baizik eta modu-transmisio bat.

Aplika daitekeen araubide juridikoa ondoko lege eta arau hauetakoa izango da:

- Toki araubidearen oinarriak arautzen dituen Legea.
- Toki erakundeen Ondasun Erregelamendua, 109. artikulua.
- 33/2003 Legea, Administrazio Publikoetako Ondareari buruzkoa, 131. artikulua eta horren ondorengoak.
- 7816/1986 Legegintzako Errege Dekretua, 79. eta 80. artikulua.
- 2/2006 Legea, Euskadiko Lurzoruarena eta Hirigintzarena.

Araubide horietatik hauxe ondorioztatzen da:

- Besterenganatzeko aurretiazko baldintza:
 - * ondare izaera edukitzea.

Izan ere, ondare ez diren udal ondasunak besterenezinak dira.

Partzela horrek, adierazi den bezala, udalaren beraren ondare izaera du.

* ez da beharrezkoa Udalaren eskumenak eta betekizunak gauzatzeko:

Adierazi behar dena da, Administrazio Publikoetako Ondare Legearen 131. artikulua – hasiera batean behintzat Estatuko Administrazio Orokorrari aplika dakioken artikulua- Administrazioaren eskumenetarako eta betekizunetarako beharrezkoak ez diren ondasunak besterendu egingo direla ezartzen duenean, helburu berezi bat ez duten ondasunen besterenganatzeaz ari dela, eta ondasun horiei errentagarritasun ekonomiko bat bilatzearen izenean besterentzen direla.

Oraingo kasu hau zeharo bestelakoa da. Desafektazio edo jaregite espedientean bertan jasotzen zen jaregitearen arrazoibidea: jaregin ondoren saltzea zen asmoa, leku hartan Merkataritza Konplexu bat eraikitzeke eta eraiki ondoren, udalari, parte pribatiboak ematea, hau da: azoka plaza jartzeko lekua eta parkingeko solairu bat. Hori dena, Antolaketako Plan Orokor berriak aurreikusitako antolamenduarekin bat etorrira.



* ondasunaren depurazio fisikoa eta juridikoa:

Finka hori Jabetza Erregistroan dago inskribatua eta, eraikinekin batera, Ondasun Inbentarioan dago sartuta. Ez du zortasunik edo jaregiterik.

Hala ere, finka eskuz aldatu baino lehen, segregazio bat egin behar da.

Hala da: gaur egun, azoka plaza eta Musika Eskola hartzen dituen orubeak, baita aipatu diren gainerako lokalek eta inguruko espazioek edo lekuek, 4.279,83 metro koadro hartzen dituzte eta besterendu nahi den orubeak ostera 3.526,25 metro ditu. Hori gertatzen da orube osotik erabilera publikoko guneak edo lekuak kendu zirelako, eta antolamendu berriaren arabera, erabilera publikokoak izaten segitu behar zuten. Saldu behar den partzelaren azalera eta haren mugariak urte honetako apirilaren 24ko udal arkitekto andrearen txosten bidez zehaztu ziren.

- Baldintzapeko besterenganatzea:

Kasu honi dagokionez, askotan esan den bezala, besterenganatze hau ez da besterenganatze huts edo soil bat, besterenganatze horrekin batera bete beharreko obligazio batzuk daude, eta horren haritik gogora ekarri behar da zer den Administrazio Publikoetako Ondare legearen 111. artikulua ezartzen duena: "Ondare-ondasunei eta -eskubideei buruzko xedapen-egintzarik baldin badaukate, kontratuak, hitzarmenak eta gainerako negozio juridikoak itun-askatasunaren mendean egongo dira. Administrazioak, komenigarriak irizten zaizkion klausulak eta baldintzak jar ditzake, baldin eta ez badira interes orokorraren aurkakoak, antolamendu juridikoaren aurkakoak edo administrazio onaren printzipioaren aurkakoak.

Erosleari ezarritako kontraprestazioek helburu hau dute: udalak, derrigorrez eskaini behar duen zerbitzuarendako -azoka plaza- aurreikusitako lekua izatea eta baita parking publiko bat jartzeko ere, beraz, kontraprestazio horiek interes publiko bat lortzearren ezarri dira.

3. Araubide berezia, ondasuna Lurzoruaren Udal Ondarean sartzetik ondorioztatzen dena.

Ondasuna, jaregin edo desafektatu ondoren, Lurzoruaren Udal Ondarean txertatzen da.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren Euskal Legeko 113.2 artikulua a) atalaren arabera, hirigintzako plangintza orokorrak hiri-lurzoru edo lurzoru urbanizagarritzat sailkatzen dituen lursailak dira Udalaren Lurzoru Ondarean sartzen direnak.

Udalaren lurzoru-ondarean sartutako ondasun izatearen baldintza horrek - Toki Erakundearen Ondasun Erregelamenduaren 16. artikulua arabera- udal lurzoruaren araudi zehatzari jaramon egitea eskatzen du aurrenik.

Gaur egun, gure autonomia erkidegoan, araubide hori Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 Lege horren 111. artikulua eta horren ondorengoek dakarte.

Lege horren 115. artikulua udalaren lurzoru-ondarea osatzen duten ondasunei aplikatu behar zaizkien xede batzuk ezartzen ditu.



Halaber, Legeak aurreikusten du baita kasu hau: planeamendu orokorraren arabera, ondasun horiek ez izatea zuzkidura publikorako edo babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeko.

Oraingo honetan, kasu horren aurrean gaude. Ez da ahaztu behar, besterendu nahi den ondasun hori hasiera batean ez zela ondare-ondasun bat, ondasun publiko bat baizik, eta izaera juridikoaren eraldaketa-prozesu baten ondoren bilakatu dela ondare-ondasun. Hau da: esan daitekeena da ondasunaren ondare-izaera hori aldi baterakoa eta beharrezkoa dela etorkizuneko antolamendua gauzatu ahal izateko.

Gainera, egin nahi den kontratua amaitu ondoren, eraikinaren zati bat berriro ere udal jabari publikoaren ondare izango da.

Hortaz, 2/2006 Legearen 116. artikulua uzten du ondasun horiek askatasunez besterentzea, hirigintza-plangintzaren arabera, lurzoru horien zertarako udal lurzoru-ondareari berezkotzat bezala finkatu zaiona ez denean, baina baldintza bi hauekin: besterentzea lehiaketa edo trukatzeko bidez egitea eta horrela lortutako diru-sarrerak eta ondasunak udal lurzoru-ondararako erabiltzea.

Amaitzeko, esan daitekeena da, toki erakundeen ondasunei buruzko araubide orokorraren arabera eta udalaren lurzoru-ondareari dagokionez, partzela hori besterendu daitekeela hainbat baldintza beteta.

4.- Besterentzeko prozedura:

Besterentze hori lehiaketa askeko prozesu baten bidez egingo da.

Administrazio Publikoetako Ondarearen Legearen arabera, lehiaketa lehenetsiko da.

Lurzoruaren eta Hirigintzaren 2/2006 euskal legeak, bere 116.4 artikuluan ezartzen du besterentzea, kasu honetan, lehiaketa edo truke bidez egin behar dela.

Araudi horrek exijitzen duen lehiaketa-prozesu bat betetzearren, eta, lehenago esan den bezala, ez denez salmenta soil bat, hori eskuratzen duenak, udalari zati pribatuak entregatzera eta hirigintza-zamak eta kontraprestazio batzuk bere gain hartzera baldintzatutakoa baizik; Ogasun, Idazkaritza eta Hirigintza Sailen artean besterentzeko baldintza-orrien proposamen bat egin da, islatu beharreko guztiak hartuko dituztenak.

Esleipen prozesua toki erakundeen kontratazioari aplikagarria zaion araudiaren arabera egingo da, batik bat, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen arabera.”

Horren ondorioz, Herri Kontuen Euskal Epaitegiak azaltzen duenaz aparte, besterenganatze figuraren aukeraketa zuzen justifikatuta dago horretarako hasitako espedientean.

Edozein kasutan ere, berriro diogu, ondasunak besterentzearena ez da salbuespeneko edo aparteko figura bat ondasunak erabiltzeko beste modu batzuekiko, eta horren erabilera toki-korporazioen esku dago inongo prozedura berezirik erabiltzeko premiarik gabe; horretarako toki-korporazioek ez dute ere beste Administrazio bati edo Erakunderen bati baimenik eskatu beharrik (baldin eta ondasunen balioa udalaren urteko aurrekontuaren ohiko baliabideen 100eko 25etik gorakoa ez denean).



Besterentze-kontratuaren izaera juridikoari buruzko iritzi teorikoetan sartzeke, oinarritzkoena, udal espediente administratiboaren tramitazioa bera da, exijitutako konponbidea zuzenbidearen araberakoa dela modu arrazoituan egiaztatuko lukeena.

Halaber, lehiaketa askea bermatu behar da, aukera berdintasuneko lizitazio publikoaren bitartez. Horrela egin da.

Are gehiago: udal batek, etorkizunean zerbitzu publikoko eraikin bat eraikitzearen truke, ondasun bat edo partzela bat saldu edo besterentzea, sarritan erabiltzen den figura bat dela zalantza ezina da lege aldetik (Ikusi “El Consultor de los Ayuntamientos”, 21. zenbakia, 2011ko azaroaren 15etik 29ra bitarteko hamabostaldia, La Ley editoriala).

Hain zuzen ere, horrela jardun zuen Eibarko udalak, beraz, ez da ulertzen bere sustrai juridikoa Kode Zibilarren 1271. artikuluan duen prozesu bat zalantzan ipintzea, izan ere, toki-korporazioak, prozesu horretan behar zen zuhertasun guztia erabili baitzuen kontratistak bere gain hartu zituen obligazioak bete zitzaizkion, besteak beste, udalari itzuli beharreko eraikinak entregatzea.

Egiteko hori baimentzen du baita azaroaren 3ko 33/2003 zenbakiko Legearen 153. artikulua, administrazio publikoen ondareari buruzko legea.

Azkenik, atentzioa ematen du Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak Errebalen kokatutako partzela besterenganatzeko figura erabili izanaren egokitasuna zalantzan ipintzea eta “beste figura” batzuk aipatzea, beste horiek zeintzuk diren esateke eta horiek erabili izateak ekar ditzakeen bentajak edo alde onak justifikatzeke.

Eibarko Udal honek ostera, jaregite edo desfektazio-espedientea egiterakoan, 2006ko apirilaren 12an luzatutako Alkatetzaren Txostenean jasotako oinarrietan funtsatuta ebatzi zuen. Txosten hartan, hitzez hitz, hauxe zen idatziz jaso zena:

“... Bideragarritasun ekonomikoaren azterketarako bi uste hauek ditu kontuan: Bata, azokako saltokiak eta hango merkataritza-lokalak emakida bidez ustiatzea eta, gero saltzeko, aparkalekuen aldea erostea, eta, bestea, bakarrik azokak hartzen duen aldea ustiatzea emakida bidez, eta bestea, merkataritza-lokalen aldea eta aparkalekuetakoa erostea gero saltzeko.

Azterketa hori Udal Talde guztiei helarazi zitzaizkien eta, udal teknikariek aztertu zezaten haren eskuetan jarri zen; horretarako, IKEIko teknikarien eta udal teknikarien arteko bilerak egin ziren. Udal teknikariak hauek izan ziren: Erosketa teknikaria, Kontu-hartzailea eta Udal Idazkari Nagusia. Baita Plan Orokorreko lege-aholkulariarekin ere.

Aukerak honela zehaztu ziren: Edo finka emakida bidez eskualdatzea konplexu berria obra legez eraikitzeko, obra publikoaren emakida figura legez, eta horren ondorioz, merkatu plazaren zerbitzuaren emakida emakidadunak bere gain hartzea, edo, bestela, obra publikoaren emakida horren barruan, emakidadunari, konplexuaren zati baten jabetza eskualdatzea, edo, azkenik, orubea ondare-eragiketa legez saltzea obra publikoarekin lotzeko, baina adjudikazioduna behartuta azoka plaza eta parkingaren solairua jartzeko egokitutako alde bat entregatzera.

Aukera guztiak aztertu ondoren, aipatu den azken hori izan zen aukerarik egokientzat hartu zena, besteak beste, ondoko arrazoi hauengatik:



- Oso zaila delako, emakidaren berrogei edo berrogeita hamar urte horietan merkatu plazaren emakidaren iraupena bermatu ahal izatea eta horren kudeaketa udalak bere gain hartzea. Izan ere, udal bizitzan ez da eredu horretako esperientziarik.
- Eragiketa juridikoki egokitzeko zailtasuna –eta horrek dakarren ziurgabetasun juridikoa- obra publikoren emakidaren figuran, kontuan hartuta, merkatu-zerbitzuak berea duen azaleraren portzentajea konplexu osoak izango lukeen azalera osoarekin konparatuta % 7aren ingurukoa dela.
- Udal finka hori behar bezala aprobetxatzeko helburua betetzea gaur egun dagoen azoka plaza biziberritzeko, eta, aldi berean, hiriaren erdialdean bertan merkataritza-zentro deigarri bat jasotzea, islatutako gainerako figurena baino prozesu garbiago eta zuzenago batekin.

Udalak finkaren titulartasuna transmititu arren, gero, konplexuaren zati batera iritsiko litzateke jabekidetasun bidez, hain zuzen ere azoka plazarakoa eta aparkaleku-plazarakoa den zatira; eta, horren ondorioz, orubean ere dagokion partizipazioa izango luke.

Bestalde, oraingo Musika Eskola Portalea eraikineria eramango litzateke.

Aukera horrek hirigintza-plangintzaren berrespena eduki behar du. Horregatik, udalerrria bere Antolamendurako Plan Orokorra egiten ari zenez, Plan Orokorren bulegoari, Plan Orokorren antolaketa berrian aukera horren oinarritzko parametroak jasotzeko agindua eman zitzaion.

Hala da: unitate hau izan zen 2005eko abenduaren 19an Antolamendurako Plan Orokorren Dokumentu Eguneratuari emandako hasierako onespren hartan berreskuratu zenetako bat.

Hirigintza-aurreikuspen berriak Errebalean merkataritza-zentro bat eraikitzen uzten du lehen adierazitako baldintza horiekin.”

(Partzelaren jaregiteari edo desafektazioari dagokion espediente administratiboaren 132. orritik 134. orrira bitartean, orri biok barne).

Horren ondorioz, atal honetan idatziz jasota utzi behar dena da, ondasunaren besterentzea zela figura juridikorik egokiena lortu nahi ziren helburu publikoak eskuratzeko.²

² Ondorioak ez du ukatzen udal lursail bat besterendu daitekeela, baizik eta azpimarra egiten du besterentzea ez dela udal ondarea zaindu eta babesteko obligazioarekin egokien ezkontzen den irtenbidea. TEOEren 8. artikulua araber, toki erakundeak diren ondasunen kalifikazio juridikoa aldatzeko, horren legezotasuna ez ezik, egokitasuna ere egiaztatu behar da. Udalaren zerbitzuek eurek 2006ko apirilaren 26an egindako txostenean bertan jaso zuten eragiketa hark zuen alderdi negatiboa udalari eragiten zion ondare galera zela. Udalak aztertutako gainerako aukerek ez diote erreferentziarik egiten lurzorua saldu edo ustiatzeari, baizik eta merkatua kudeatu eta ustiatzeko moldeari eta eraikuntza obra berari edo kontratu motari dagozkio. Jakin badakigu udal teknikariek azalera eskubidea balizko aukeratzat hartu zutela behin kontratua suntsitu ondoren eta, berebat, LLTBren 17.4 artikulua berak suposamendu horrekiko alternatiba bat eskaintzen du.



2.- Bigarren ondorioari:

2.1.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

2.- El acuerdo de desafectación de la parcela, aprobado por el Pleno de 8 de mayo de 2006, incumple el artículo 69 de la LPAP al no haberse dejado de destinar al servicio público el uso total de la misma. El PGOU mantuvo el destino demanial de algunos espacios de la parcela, al reservar unas zonas para mercado de abastos y aparcamiento público, no produciéndose, por lo tanto, la desafectación pretendida. En consecuencia, el Ayuntamiento ha incumplido el artículo 80.1 de la LBRL que imposibilita la enajenación y el cambio de titularidad a terceros privados de los bienes de dominio público.

2.2.- Alegazioak.

Partzela besterenganatzeko egin zen bezala, aldez aurretik, Eibarko Udalak, horren jaregitea edo desafektazioa egiteko administrazio-espedito oso bat tramitatu zuen eta hor azaltzen da IKEI enpresak egin zuen Errebal Azoka Eraldatzeko Proiektua (partzela desafektatzeko edo jaregiteko Espediente Administratiboaren 1go. orritik 81. orriraino, orri biok barne), Alkatetzak egindako Memoria justifikatzailea (partzela desafektatzeko edo jaregiteko Espediente Administratiboaren 132. orritik 134. orriraino, orri biok barne), baita udal arkitekto andreak egindako txostenak (partzela desafektatzeko edo jaregiteko Espediente Administratiboaren 135. orritik 136. orriraino) eta Udal Idazkari Nagusiak egindakoak (partzela desafektatzeko edo jaregiteko Espediente Administratiboaren 136. orritik 1411. orriraino, orri biok barne).

Ikuspegi horretatik, Toki Erakundeetako Ondasunen Erregelamenduak, ekainaren 13ko 1372/1986 Legegintzako Errege Dekretuz onartutakoak, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak ahaztuta utzi duen legeria zehatz horrek, bere 8. artikuluan, Toki Erakundeen ondasunen sailkapen juridikoa aldatzeko aukera dagoela ezartzen du.

Hortaz, aurrenik, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak -alegazio hauen sarreran azaldu dugun bezala- bere betekizun edo zereginen muga gainditu du, atal honetan Eibarko Udalaren hirigintza-jarduketara ari delako fiskalizatzen eta horretarako ez du legezketasunik otsailaren 5eko Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren 1/1988 Legeak ezarritakoaren arabera.

Hurrenik, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak interpretazio akats batean erori da Eibarko Errebal partzela izenekoarentzat proiektatutako jardueran.

Hala da: Eibarko Udaleko udalbatzak, 2007ko urtarrilaren 29an egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen:

“Ondoko ondasun hauen lege-sailkapen aldaketari -jabari publikoko ondasun izatetik ondasun propio izaterakoa- eman zaion behin betiko onarpenaren arrazoi-hartzea egitea, udalbatzak 2006-5-8an hasiera batez onartu zuen aldaketa:

- Errebal kaleko 13. eraikina, Elikagai Merkatua edo Merkatu Plaza, Ondasunen Inbentarioan 21 00001 matrikula-zenbakiarekin jasota dagoena.
- Errebal kaleko 11. eraikina, Herriko Musika Eskola, Ondasunen Inbentarioan 21 00002 matrikula-zenbakiarekin jasota dagoena.



- Plaza ostean Udal Lantaldearentzat dagoen 44 metro karratuko lokala, gaur egun erabilera zehazturik ez duena, Ondasunen Inbentarioan 22 matrikula-zenbakiarekin jasota dagoena.
- Merkatu Plazaren eskailerapean Udal Lantaldearentzat prestatuta dagoen 25 metro karratuko lokala, Ondasunen Inbentarioan 2. matrikula-zenbakiarekin jasota dagoena.
- Orubea, 3.526,25 metro koadrokoa, honen aurretik adierazitako eraikin guztiak kokatzen diren lekua; eta mugarri hauek dituena: iparraldetik Muzategi kalea, hegoaldetik Errebal kaleko bidegintza, sortaldean Blas Etxeberria kaleko 3. eraikinaren espaloia eta Merkatu kalea, eta sartaldean, 17+18 Muzategi-Indianokua BJUren muga.

Bestalde, araubide edo jaurpide berria, partzelaren zertarako eta erabilera berriekin, onartuta geratu da, 2006ko abenduaren 12an Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen kontseiluak Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Nagusiari eman zion behin-betiko onarpenarekin.

Halaber, A 137.01 fitxan jasotzen den akatsa agerian utzi nahi da: antolaketaren parametroei dagokien atalean, sestra azpiko eraikigarritasunari dagokionez "garaje" erabilera jasotzen da, hor jaso beharko litzatekeena "erabilera tertziarioa eta erabilera bateragarriak" denean.

Akats hori une honetan egiten ari den Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Nagusiaren testu bateratuan konponduko da, onartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiari bidali behar zaion agiria.

Baldintza orrian agertzen den hirigintza-fitxan akatsa zuzendutako dago.”

Hau da: Eibarko Udaleko udalbatzak, gero eraitsi ziren elementu batzuen desfektazioa edo jaregitea egin zuen; baita elementu horiek azpian zuten orubearen desfektazioa ere.

Ondoren, Eibarko udalak, lehiaketa publiko baterako deia zabaldu zuen Errebal kaleko 11n eta 13an zegoen udal jabetzeko partzela bat besterenganatzeko; leku hartan Azoka plaza eta Musika Eskola zeuden, eta horren xedea, merkataritza-gunea eraikitzea zen.

Lehiaketa arautu zuen Administrazio Baldintza Orrien laugarren klausulak zioena zen adjudikaziodunak bere gain hartu behar zituela zegozkion kargak 137.01 BJUren hirigintza-antolaketaren arabera; ondokoak hain zuzen ere:

- Errebal kaleko Azoka edo plaza, Musika Eskola, eta antolamendu berriarekin bateraezinak diren gainerako eraikinak eta urbanizazio-elementuak eraistea.
- Aldi baterako azoka edo merkatu plaza jartzea eta gero kentzea.
- Errebal azokan gaur egun dauden saltokien titularrek aldi baterako azokara joatean izango dituzten leku-aldaketa gastuak, eta, baita ere aldi baterako azoka horretatik merkataritza-gune berrira behin betiko azokara joatean izango dituztenak.
- Hirigintza-aprobetxamenduaren % 10aren ordainketa hilabete bateko epean birpartzelatze-proiektuaren behin betiko onespenetik.
- Antolaketari ezarritako sormenak ezartzea.
- Gune librean urbanizazioa eta lagapena.



- Unitatearen sustatzaile legez dagozkion gainerako eginkizun guztiak, besteak beste hor sartzen dira Eraikuntza, Instalazio eta Obra Zerga, eta urbanizazio-zama edo kargak egikaritzeko bermea.

Aldi berean, Baldintza Orriaren bosgarren klausulak haxe ezartzen zuen: Eibarko Udalak egiten zuen partzelaren transmisio edo esku aldaketa horren ondorioz adjudikazioduna derrigortuta zegoela, Udal Administrazioari, Merkataritza Zentroa amaitu ondoren eta horko zati pribatu legez, ondokoak entregatzera:

- 1.- Merkatu plaza izango den lokal baten jabetza.
- 2.- Aparkaleku publikoa izango den lokal baten jabetza.
- 3.- Partaidetza-alikuota aipatutako zati pribatu horiei dagokien orubearen jabetzan; erreferentzia legez konplexuaren edo esparruaren metro eraikiak, kokapena, egoera eta erabilerak hartuta.

Desafektazioaren edo jaregitearen ondoren, udalbatzaren erabakiak edo akordioak berak dioen moduan, 2006ko abenduaren 12ko Gipuzkoako Foru Aldundiaren Diputatuen Kontseiluaren erabakiz behin-betiko onartu zen Herriaren Antolamendurako Plan Nagusia edo Orokorra, eta hor azaltzen da partzelaren araubide berria eta haren zertarakoak eta erabilerak.

Zertarakoen eta erabileren araubide berri hori partzela horretan jasotzekotan zegoen Merkataritza Zentroa eraikitzen zen unerako ezarri zen.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitakoaren kontrara, HAPOak ez zion eutsi partzelaren gune batzuen xede demanialari edo herri-jabariari, hango leku edo gune batzuk merkatu plazarako edo elikagaien merkaturako eta aparkaleku publikorako gorde zituelako.

HAPOak berak dakartzan determinazioak aztertuta, haxe ikusten dugu:

- Planean ezarritako Unitateak, Errebal 137 JI delakoak -horren fitxa kontrataziorako Administrazio Baldintzen orriko III. eranskinean jasotzen da- partzela hori baino ez du hartzen eta soil soilik, "irabazi asmoko erabilera tertziarioa eta bateragarria" da jasotzen duena, 10.230 metro koadro eraikitan zenbatuta.

Aprobetxamendu hori merkataritza-zentroaren eraikuntzarekin gauzatzen da; horko zati batean azoka plaza edo merkaturak kokatuko litzateke, eta beste zati batean, parkinga.

- Unitatea aprobetxamendu tertziarioko Unitatetzat sailkatzen da, ez ekipamendukotzat edo sistema orokorrekotzat, HAPOeko beste unitateak bezala.
- Grafiak berak eta lemak ondo erakusten duten bezala, partzela hori ez da herri-jabarikoa, merkataritza izaerako irabazi asmoko edo etekin aprobetxamendukoa baizik, estatu mailako beste denda handi batzuk hartzen dituzten beste unitate batzuetakoak bezala.

Ostera, HAPOak egiten duena da, leku edo gune sortu berri batean, Merkataritza Zentroa, herri-jabari bat edo demanio-xede bat eratu, eta zentro hori eraiki edo jaso ahal izateko, aurretik, hasierako partzelaren desafektzioa edo jaregitea egin behar zen.

Horixe da Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak egin duen interpretazio akatsa edo errorea: ez ulertzea jatorrizko orubea goitik behera eraldatu zela, eta horretarako, orubearen jaregite



edo desafektazio osoa egin zen, ondoren, han aterako ziren gunen batzuen afektazioa edo jaregitea a posteriori egiteko.

Horren ondorioz, atal honetan idatziz jaso behar dena da Eibarko Udalak zuzen hartu zuela partzelaren desafektazio edo jaregite akordioa, partzelaren erabilera osoak kendua zuelako zerbitzu publikora zuzentze hura.³

3.- Hirugarren ondorioari:

3.1. - Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

3.- El Ayuntamiento, ha utilizado el procedimiento del concurso público mediante la figura del contrato administrativo especial para la venta de la parcela. El Registrador de la Propiedad, por su parte, ha calificado la operación como permuta. Así mismo, del análisis del expediente administrativo se desprende que la prestación real que subyace como objeto del contrato es la de un contrato de obras, y por tanto no se valoró convenientemente su coste, ni exigió a los licitadores clasificación empresarial alguna.

3.2.- Alegazioak.

Aurreko atalean azaldu dugun bezala, Eibarko Udalak, lehiaketa publiko baterako deia zabaldu zuen Errebal kaleko 11n eta 13an zegoen udal jabetzeko partzela bat besterenganatzeko; leku hartan Azoka plaza eta Musika Eskola zeuden, eta horren xedea, merkataritza-gunea eraikitzea zen.

Horretarako, Errebal kaleko 11.ean eta 13.ean kokatutako udal partzela besterenganatzeko orduan, administrazio-espeditente oso bat tramitatu zuen eta espeditente horretan jasota daude gaiari zegozkion txostenak: Udal Arkitekto andreak egindakoa (partzela besterentzeko Espeditente Administratiboaren 1go. orritik 10. orriraino, orri biok barne), Udal Idazkari Nagusiak egindakoa (partzela besterentzeko Espeditente Administratiboaren 39. orritik 46. orriraino, orri biok barne) eta Kontu-hartzaile jaunak egindakoa (partzela besterentzeko Espeditente Administratiboaren 48. eta 49. orriak).

Aldez aurretik, 2006ko abenduaren 13an, Idazkari Nagusiak eta Erosketa eta Kontratazio Ataleko Teknikariak, Administrazio Baldintzen Orria egin zuten, Errebal kaleko 2006an eta

³ Eibarko HAPO berriak, behin-betiko 2006ko abenduaren 12an onartu ondoren, A.I.137.01 Errebalerako honako helburu hau aurreikusten du: "udal azokaren jarduera biziberritzea merkataritza gunen bat sortzearekin, udal azoka, lehorreko elikadura gunea eta jatetxe zein aisialdirako instalakuntzetarako gunea besarkatuko dituen. Jarduera honekin batean, egoiliarrentzat txandakako aparkalekua egin nahi da, merkataritzako jarduerarako behar denaz gain. Kalifikazio juridikoa aldatzeko beharrezkoa da desafektazio formal bat ez ezik, egiazko desatxikipena ere egitea, zeinak, logikoki, duen izaerak berak behartuta, ondasun horien gaineko eten besterenezina eta preskribaezina ekarriko duen, guztien intereseko izateari uzteagatik. Ordea, lursaila saldu da artean merkatuaren azoka bertan gauzatzen zenean. Honi dagokionez, jada udal zerbitzuek 2006ko apirilko txostenean ohartarazi zuten "egitatezko desafektazioa, zerbitzu publikorako ez uztea eraikina eraisten denean eta merkatua behin-behineko kokagunera eramaten denean gertatuko da".



13n (azoka plaza eta musika eskola) dagoen udal jabetzako partzela, Eibarko herriaren antolamendurako plan nagusian edo orokorrean merkataritza erabilerarako hiri-lur sailkapena duena, lehiaketa bidez besterentzekoa, Merkataritza Zentro bat eraikitzeko.

Administrazio Baldintza Orri horren bigarren klausulak, "Araubide Juridikoa" izenekoak, hauxe jasotzen du idatziz:

“Adjudikaziotik sortuko den kontratuak, kontuan hartuta zein den asetu nahi den helburu publikoa, administrazio kontratu Bereziaren izaera du, ekainaren 16ko 2/2000 Lege Errege Dekretuz onartutako Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko testu Bateratuaren 5.2.b) artikulua ezarritakoarekin bat etorrita, administrazioak egin ditzakeen kontratuen izaera administratiboa eta pribatua ezartzen duen artikulua, eta kontratuak prestatzeko, adjudikatzeko, kontratuen ondorioetarako eta kontratuak azkentzeko Baldintza Orri hau, Administrazio Publikoetako Kontratuen legeko testu bateratuan dauden xedapenek eta hura garatzen duten xedapenek eraenduko dute.”

Ekainaren 16ko 2/2000 Legegintzako Errege Dekretuak, Administrazio Publikoetako Kontratuen legeko Testu Bateratua onartzen duenak –aztertutako lizitazioa egin zen unean indarrean zegoena- bere 5.2. artikuluan, administrazio-kontratuak, ondoko hauek direla ezartzen du:

a) Batera edo banan, obrak egin, zerbitzu publikoak kudeatu eta hornidurak egiteko xede zuzena daukatenak, herri-lanak emateko direnak, aholkularitza eta laguntza eman nahiz zerbitzuak betetzeko direnak; salbuespen izango dira 206. artikuluko 6. kategorian jasotako kontratuak, aseguru-kontratuei, bankuko kontratuei eta inbertsio-kontratuei baitagokie kategoria hori, eta, era berean, artikuluko 26. kategorian jasotakoen artean, salbuespen izango dira artea eta literatura sortzea eta interpretatzea xede duten kontratuak, eta ikuskizunetakoak ere bai.

b) Aurrekoan adierazitako kontratuen xedea barik besteren bat eduki arren, Administrazioarentzat izaera berezia daukaten kontratuak, bai Administrazio kontratugilearen berariazko igorpen nahiz trafikoari lotuta daudelako, bai administrazioaren berariazko eskumeneko helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako, bai legeren batek halakoak direla deklaratzeko delako.”

Transkribatutako artikuluko horrek, administrazio kontratutzat hartzen ditu ohikoez kanpoko kontratuak baina administrazio-izaera berezia daukatenak, bai Administrazio kontratugilearen berariazko igorpen nahiz trafikoari lotuta daudelako, bai administrazioaren berariazko eskumeneko helburu publikoren bati zuzenean edo berehala erantzuteko direlako, bai legeren batek halakoak direla deklaratzeko delako.

Kasu honetan, udalaren eskumenaren asetze edo helburu betetze hori HAPOak jasotzen duena baino ez da, Errebal 117. JUren edo Unitatearen fitxa horretan jasotako helburuoi erantzutea: “Helburua, udal merkatuaren jardura biziberritzea da. Horretarako, hirigunean merkataritza-gunea jarriko da eta bertan barneratuko dira udal merkatua, lehorreko elikagai-salguneak eta jatetxe eta aisialdiko instalazioetarako eremua.”

Besterenganatzea helburu horiei lotu izan ez bazitzaie ez ziren ezarriko kontratuaren Administrazio Baldintza Orriaren bosgarren klausulan jasotako obligazioak, hau da, udalean



hainbat leku edo gune dagoeneko eraikita, eta horrez gain, ekipatuta edo jantzita entregatzeko obligazioak.

Zentzu horretan eman zuen erabakia 1990eko otsailaren 13ko Auzitegi Gorenaren Hirugarren Aretoko epaiak, 1go. sekzioak, (LA LEY 12867-R/1990), hauxe baitzioen:

“Bosgarrena:- “Auzitegi honen doktrina berretsia da (bertako 1. Aretoko edo Salako epaiak: 1982ko maiatzaren 11koa; eta 1983ko urriaren 3koa eta 16koa; 1985eko apirilaren 30ekoa; 1986ko martxoaren 14ko, apirilaren 30eko eta urriaren 3koa; 1987ko urriaren 9koa eta 1988ko uztailaren 11koa, besteak beste) kontratu pribatuen eta kontratu administratiboen arteko bereizketa egiteko -zuzenbide arrunteko klausula derogatzaile edo neurritz kanpoko ohiko irizpide horiek bazterrean utzita- negozioaren xedeari edo azken helburuari erantzun behar zaiola; hortaz, erlazio juridiko zehatz edo jakin batek izaera administratiboa izango du zerbitzu publiko bat eskaintzetik datorrenean, eta zerbitzu publikoaren kontzeptu hori esanahirik zabalenean hartuta, Administrazioak, interes orokorrari erantzuteko beharrezkotzat bezala garatzen duen edozein jarduera edo zeregin sartuta, bere eskumenaren esparru zehatz horretan egon daitekeen interes orokorra, eta hain zuzen ere, horrexegatik, bere betekizun bereziei dagokiena; 1973ko martxoaren 17ko Estatuko Kontratuen Legeko 4. artikulua ematen digun zentzu zabala, administrazio-organoak duen funtzio- eskumenen esparruan dituen betekizunen zerrenda tipikoa barne – artikulua horren 2. erregela. Doktrina hori aplikagarria da baita Toki Korporazioen kontratazioan, apirilaren 2ko 7/1985 legearen 5. artikulua eta apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 112. artikulua agindutakotik ondorioztatzen den bezala; azkenak -112. artikulua- bere 2. atalaren 1. Erregelari hauxe ezartzen baitu: helburu zuzentzat Toki Erakundeen kargu egiten diren obrak egitea eta zerbitzu publikoak kudeatzea duten kontratuak, administrazio-kontratu izaera dutela. Eta Auzitegi honetako 1. aretoak berak, 1986ko apirilaren 30ean emandako epaian, argi asko zioen bezala, ‘zerbitzu publiko’ kontzeptua hain zabala denez, administrazio-kontratuaren kontzeptua, doktrinaren ikuspegitik, zerbitzu publikoaren definizio negatiboak edo baztertzailak berak zehazten duela, hau da: kontratuak ez duenean Administrazioaren jabari pribatuaren, ondare-jabariaren edo jabari merkantilaren kudeaketa helburutzat, kontratua administratiboa izango da, baina Lurraldeetako Udal Korporazioen kasuan, legeak dagoeneko zehazten du positiboki zeintzuk diren udalerraren eta Lurraldearen edo Probintziaren zerbitzu publikoak edo probintzialak (lehen aipatu den 1985eko apirilaren 2ko Legea, toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 25.2 eta 31.1a) artikulua). Hartara, helburutzat bere eskumeneko zerbitzu horien kudeaketa zuzena edo zeharkako kudeaketa duen edozein Toki Administrazio Publikok (udalak edo lurraldeek) emandako edozein kontratu izango da administrazio-kontratu, izan ere, 1986ko abenduaren 29ko gure epaiak dioten moduan, Administrazioaren eskumenekoa den zerbitzu bat eskaintzean datzanean kontratuaren izaera administratiboa sailhestezina baita, jurisprudentziak berak administrazio-izaera aitortzen dielako Administrazioak egiten dituen kontratu guztiei, kontratu horien helburua, administrazio horien eskumeneko premia edo behar publiko bati zuzenean edo zeharka erantzutea denean.”

Oraingo kasu honetan, Administrazio Baldintza Orriek dioten bezala, kontratuaren helburua, Eibarko hiriaren Antolaketa Plan Orokorrean erabilera tertziarioko hiri-lur



sailkapena duen udal jabetzako partzela, Errebal kaleko 11n eta 13an kokatua (Errebal kaleko merkatu plaza eta Musika Eskola), lehiaketa publiko bidez besterentzea eta Merkataritza Zentro bat eraikitzea da.

Horretarako, Baldintza Orrien hirugarren klausulak besterendu nahi den partzelaren deskripzioa egiten du.⁴

Bestalde, zazpigarren klausulan, eskualdaketa horregatik lizitatzailleek ordaindu behar zuten gutxieneko prezioa ezartzen zuen: 641.303,00 euro.

Azkenik, aipatu den Baldintza Orriaren bosgarren klausulan adjudikazioa eskuratzen zuenaren beste kontraprestazio gehigarri batzuk ezartzen ziren, hain zuzen ere, Eibarko Udalari, Merkataritza Zentroa amaitu ondoren, horko zati pribatu legez ondokoak entregatzera behartzen zutenak:

- Merkatu plaza izango den lokal baten jabetza, bertan adierazitako ezaugarriak eta ekipamenduak izango zituena.
- Parking edo aparkaleku publikorako lokal baten jabetza, baldintza orrietan adierazitako neurriak, ezaugarriak eta ekipamenduak izango zituena.
- Partaidetza-alikuota aipatutako zati pribatu horiei dagokien orubearen jabetzan; erreferentzia legez konplexuaren edo esparruaren metro eraikiak, kokapena, egoera eta erabilerak hartuta.⁵

Azken finean, Eibarko Udalak administrazio-kontratu bereziaren figura erabili izanari buruz esan behar dena da, erabilerara hura zuzena izan zela lizitazioaren data hartan indarrean zegoen Administrazio Publikoetako Kontratuaren Legeriaren arabera.

Bestalde, garbi dagoena da ez gaudela obra-kontratu baten aurrean, 2003ko irailaren 23ko Auzitegi Gorenaren Hirugarren Aretoak edo Salak emandako Epaiak (RA7310) deklaratu zuen bezala.

Epai horrek uste du ez dela obretako kontratu publiko bat, ezohiko kontratu pribatu bat baizik: udalak, eraikuntza-etxe bati bere jabetzako orube bat uzten dio, jareginda edo desafektatuta, eta horren truke estalitako frontoi bat eta plaza publiko bat egitea eskatzen dio; kontratistak eraikitzeko eskubidea du eta etxabe bat edo beheko solairu bat eta 200 aparkaleku saltzeko eskubidea.

Jabetza Erregistratzaileak eragiketa edo operazio hori truke legez sailkatu zuela eta, esan behar da trukea ez dagoela kontraesanean kontratazioaren lizitaziorako administrazio-kontratu bereziaren figura erabiltzearekin, izan ere, sailkapen hori, soil soilik jabetzaren

⁴ Kontratuaren xedea lursailaren salerosketa izan balitz, baliatu beharreko prozedura enkantea zatekeen.

⁵ Kontraprestazio osagarria 3,6 milioi euroena da, lursailaren balioa 4,1 milioi euroena izanik; hau da, duen balioaren % 85 baino gehiago.



transmisioa edo eskualdaketa inskribatzearen ondorioetarako izan baitzen, hau da, partzela Jabetza Erregistroan Hipoteka Erregelamenduaren arabera inskribatu ahal izateko.⁶

Azkenik, Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, prestazioaren kostuaren balorazioa desegokiaren inguruan egiten duen egozpena ere baztertu egin behar da.

Hala da, Eibarko Udalak horretarako ireki zuen espedientean partzelaren balorazioari buruzko txosten oso bat dago 2006ko abenduaren 13ko datarekin udal arkitekto andreak egindakoa (partzelaren besterenganatzeari dagokion espediente administratiboaren 6. orritik 10. orrira bitarteko orriak, horiek biok barne).

Txosten horretan, Eibarko Hiriaren Antolaketarako Plan Orokorrak zehaztutako hirigintza-aprobetxamenduaren arabera, partzelaren balioa zein zen balioesten zen justifikatuta, eta hori dena lizitazioaren zenbatekoa finkatu ahal izateko, 641.303.00 eurokoa. Zenbateko hori bere osotasunean sartu zen kontratazioa eraendu zuten Administrazio Baldintza Orrien zazpigarren klausulan.

Horregatik, baztertu egin behar da Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak lizitazioaren kostuaren balorazioa zuzena ez izatearen inguruan egiten duen funtsik gabeko baieztapena, baieztapen hori inongo justifikazio teknikorik aurkezteke egiten baita, eta beste balorazio bat edo balioespen bat egiteke.⁷

Beraz, atal honetan idatziz jaso behar dena da, Eibarko Udalak, administrazio-kontratu bereziaren figura bidez, partzela saltzeko erabili zuen lehiaketa publikoaren prozedura zeharo bat zetorrela zuzenbidearekin.

4.- Laugarren ondorioari:

4.1.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

4.La empresa adjudicataria, constituida 3 meses antes de la convocatoria del concurso público, presentó como requisito de solvencia un certificado de una entidad financiera, sin fecha, en la cual se valoraba la suficiente solvencia del licitador y de las mercantiles socias para hacer frente a los compromisos derivados del contrato, no quedando acreditada en dicho certificado la solvencia individual de la adjudicataria. La solvencia de los socios participantes no puede ser calificada por la Administración dado que dichas mercantiles no se han presentado al proceso licitatorio. Exclusivamente hubiera podido ser calificada dicha solvencia si se hubieran presentado al proceso a través de una UTE constituida al efecto, tal y como lo establece el artículo 24 del TRLCAP. Además, la presentación del certificado de una institución financiera fue el único requisito exigido en los pliegos para la acreditación de

⁶ Epaiak esaten duena da Udal kontratugileak egindako alde zuzeneko ekintzak eta kontratuaren testuinguru literalean jasotako asmoak ez ezik, eskritura publikoari emandako tituluak ere, trukea dela erakusten dutela. Kasu honetan ez dira inguruabar horiek gertatzen, izan ere eskritura publikoak salerosketa modura definitzen du. Bestetik, ezinezkoa da jabari publikoko ondasun bat besterentzea.

⁷ Lizitazio kopurua lursailaren tasazio zenbatekoaren eta merkatuko eta aparkalekuaren salmenta balioaren arteko aldearekin bat dator; ez, ordea, obraren kostu materialarekin.

la solvencia. Asimismo, si bien es cierto que no se incumple el artículo 16 del TRLCAP que permite que la solvencia pueda ser acreditada exclusivamente por este medio, dicho artículo posibilita otros medios de acreditación como las cuentas anuales y la cifra de negocios global y la cifra de las obras, suministros, servicios o trabajos realizados por la empresa en los 3 últimos ejercicios. Dado el volumen económico del contrato habría sido recomendable que la Administración hubiera exigido mayores requisitos de solvencia económica y financiera que los recogidos en los pliegos.

4.2.- Alegazioak.

Ekainaren 16ko 2/2000 zenbakiko Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikulua, Administrazio Publikoetako Kontratuen legeko Testu Bateratua onartzen duenak – aztertutako lizitazioa egin zen unean indarrean zegoena- hauxe ezartzen zuen:

“16. artikulua. Ekonomia eta finantza arloetako kaudimena.

1. Enpresaburuaren ekonomia eta finantza arloetako kaudimena modu hauetakoren bat edo gehiago erabiliz egiazta daiteke:

- a) Finantza-instituzioen txostenen bidez, edo, kasua beste hau bada, lanbide-arriskuen kalte-ordainetarako aseguruia daukala egiaztatuz.
- b) Pertsona juridikoen kasuan, urteko kontuak aurkeztuz edo urteko kontuen laburpenak aurkeztuz, baldin eta pertsona horiek kokalekua duteneko estatuetan agiriok argitaratzea nahitaezkoa bada.
- c) Azken hiru ekitaldietan enpresak egindako negozio, obra, hornidura, zerbitzu nahiz lanen kopuru orokorraren gaineko adierazpena aurkeztuz.

2. Baldin eta, justifikatutako arrazoiak direla-eta, enpresaburuaren batek aurkeztu ezin baditu eskatutako erreferentzia horiek, Administrazioak askietsi dezan beste edozein agiriren bidez egiazta dezake hark ekonomia eta finantza arloetan daukan kaudimena."

Transkribatu den artikulua araberan, aipatu behar duguna da, enpresaburuari exijitzen zaion kaudimenak Administrazio kontratatzailearen irizpide subjektibo bati erantzuten diola, kontratuaren xede den hura egiteko enpresaburuak duen egokitasunari buruzkoa. Horregatik, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legeko Testu Bateratuak ez zuen ezartzen nolako kaudimena eskatu beharko litzatekeen kontratu-mota bakoitzean; egiten zuena, kontratazio-organoak erabil zitzakeen balizko egiaztapen baliabideak zerrendatzea izaten zen.

Era horretan, kontratazio-organoa da kaudimenaren zenbatekoa edo quantuma zehazten duena, bai Baldintza Orrietan eta baita iragarkian ere. Horretarako, diskrezionalitate tarte handia du, eta muga bakarra hauxe: bitarteko horren bidez, kontratuaren helburuaren arrazoiak berak justifikatzen ez duen neurri diskriminatzailek ez sartzea.



Oraingo kasu honetan, hamargarren klausulak, “Proposamenak aurkeztea”, A kartazalean sartu beharreko dokumentazioaren 2.6 atalean, hauxe jasotzen zuen:

“2.6.- Lizitaziora aurkezten diren enpresek kaudimen ekonomikoko eta finantzarioko irizpideak egiaztatu beharko dituzte, horretarako, lizitazilairearen kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa egiaztatuko duen finantza-erakunderen baten ziurtagiria aurkeztuta. Agiri horretan, berariaz jaso beharko da, lizitazilaileak, kontratuaren prezioa ordaintzeko eta kontratuak leharzkiokkeen gastuei aurre egiteko behar adinako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa duela.”

Hau da, Eibarko Herriaren Antolamendurako Plan Nagusian hiri-lur sailkapena izan eta hirugarren sektoreko erabilera zuen Errebal kaleko 11n eta 13an (Merkatu plaza eta Musika Eskola) kokatutako udal jabetzako partzela lehiaketa bidez besterenganatzeko eskatzen zen kaudimena egiaztatzeko Administrazio Baldintza Orrietan idatziz jasotzen zen modua, bat zetorren eta erazkoa zen Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Testu Bateratua onartzen zuen ekainaren 16ko 2/2000 zenbakiko Legegintzako Errege Dekretuaren 16. artikulua zekarren edukiarekin, orduan indarrean zegoena; hori dena, kaudimen hori egiaztatzeko beste bitarteko edo baliabide batzuk izatearen kaltetan gabe.⁸

Baldintzetan zeuden betebeharren arabera, parte hartzeko eskaintzak aurkeztu zituzten, bai gero lehiaketaren adjudikaziodun atera zen enpresa –SPV Eibar Boulevard SL- eta baita beste hiru (3) enpresa gehiagok ere.

Era horretan SPV Eibar Boulevard SL etxeak finantza-erakunde baten ziurtagiria aurkeztu zuen, lizitazioaren xede zen kontratutik sortutako konpromisoei aurre egiteko behar adinako kaudimena existitzen zela egiaztatzen, bai merkataritza-sozietate horrena, eta baita gainerako kideena ere.

Banco Bilbao Vizcaya Argentaria banketxeak egindako ziurtagiri bat da eta hauxe jasotzen du:

“Lizitazilaileak eta haren kideek finantza- eta ekonomia-egoera nahiko onbideratua dutela, aipatutako lehiaketa horren prezioa eta horko gastuen finantziarioa finantza-merkatuen ohiko praktiken arabera eskuratu ahal izateko, lehiaketa horretarako finkatutako epeetan eta baldintzetan.”

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak adierazten duena adierazi arren, SPV Eibar Boulevard SL merkataritza-etxeak bere kaudimena behar bezala egiaztatu zuen, kide zituen gainerako merkataritza-sozietateen kaudimena ere egiaztatu zen bezala, “plus” bezala, konpromiso handiago bat legez, ez bakarrik lizitazilairena, baita haren akziodunena ere.

Banku-erakunde horrek aurkeztutako dokumentuak, kaudimen teknikoaren baldintza legez, finantza- eta ekonomia-kaudimena islatzen du, banakakoa, lizitazilairena eta haren kide bakoitzarena.

⁸ Ez da nahikoa kaudimena egiaztatzeko modua adieraztea, baizik eta objektibotasun printzipioa baliatuta zein enpresa diren kaudimendun bereizteko maila egokia ezarri behar da.

Hau da: kaudimen hori denena eta kide bakoitzarena ere bada, eta bai lizitatzailerak, bai haren kideek, ekonomia-egoera onbideratua dute, aipatutako lehiaketa horren prezioaren finantziakoa finantza-merkatuen ohiko praktiken arabera eskuratu ahal izateko.⁹

Ildo horretatik aipatu behar da 2007ko apirilaren 11n, Eibarko Udaleko kontratazio-mahaiak enpresaburuen nortasunari buruzko dokumentazioa zekarten kartazalak ireki zituela, baita haren kaudimenari buruzkoak ere, eta lizitaziora aurkeztu ziren lau (4) enpresek dokumentazioa zuzen aurkeztu zutela deklaratu zuen.

Gertaera bi hauek esanguratsuak dira:

Aurrena: SPV Eibar Boulevard SL etxeak kontratua burutzeko zuen ekonomia- eta finantza-kaudimen hura exijitu zen une hartan egokia zela, eta hori gerora baieztatuta geratu zen ondokoarekin:

- Arazorik gabe ordaindu zuela 754.000,00 euroko zenbatekoa, partzelaren besterenganatzeari zegokiona.
- Behin-betiko bermea (banku-abala) gordailuan utzi zuela, 4.612.633,00 eurokoa, kontraturik zetozkion obligazioak bete egingo zituela ziurtatzeko.
- Merkataritza-zentroaren eraikuntza finantzatu ahal izateko, kontratua behin adjudikatua edo esleitua zegoela, SPV Eibar Boulevard SL Etxeak Hipoteka Bat Izenpetu Zuela Hypo Real Estate Bank International AG finantza-erakundearekin, 27.646.670 eurokoa, eta zenbateko horrek behar bestean erantzuten ziola Merkataritza Zentroaren eraikuntzari.

Bigarrena: SPV Eibar Boulevard SLeK aurkeztutako proposamena onartu izanak eta ondoren lizitazioa berari adjudikatu izateak ez zuela inoiz ere lizitaziora aurkeztu ziren gainerako enpresen aurkakorik jaso.

Beraz, enpresa horrek, hasiera batean behintzat, kontratua egiteko ekonomia- eta finantza-kaudimena zuen, izan ere, egiaztatuta geratu den bezala, kontratua gauzatzeko nahikoa finantzazio baitzuen; azken finean, ekonomia- eta finantza-kaudimenak eskatzen duena horixe baita.

Horren ondorioz, atal honetan idatziz jaso behar dena da lizitazioaren adjudikazioa eskuratu zuenaren kaudimenaren balorazioak indarrean dagoen araudiari jarraitu ziola.

5.- Bosgarren eta seigarren ondorioei:

5.1.- Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren testua.

5.Las principales causas que, a la vista de la documentación analizada, han llevado a la paralización del proyecto y posterior resolución del mismo han sido:

⁹ Aipatutako ziurtagiriak ez du pleguek agindutako literalak jasotzen: “zeinetan berariaz adieraziko den lehiatzaileak behar hainbateko kaudimen ekonomiko eta finantzarioa duela kontratuaren prezioa ordaindu eta horrek eragindako gastuak bere gain hartzeko”. Bestetik, kontratuaren arautegiak ez du inongo “plus”ik onartzen, alegazioak adierazitako moduan. Azkenik, gogora ekarri behar da Udalak prezioa eta abala itzuli eta proiektua bertan behera utzi behar izan duela enpresak behar hainbateko finantzaketarik ez zuelako.



- La retirada de la financiación a la adjudicataria por parte de una entidad financiera, debido al incumplimiento de los plazos pactados en el contrato de préstamo suscrito entre ambas.
- La resolución del contrato entre la empresa adjudicataria y los redactores del proyecto de ejecución, por discrepancias sobre la viabilidad estructural del proyecto.

Según establece el artículo 98 del TRLCAP la ejecución del contrato se realizará a riesgo y ventura del contratista, salvo en supuestos de fuerza mayor.

6.- Con respecto al interés público que hace innecesario e inconveniente la permanencia del contrato, según se recoge en la resolución por mutuo acuerdo, el TVCP considera que contradice las previsiones incluidas inicialmente en los pliegos del concurso Dichos pliegos preveían la no reversión de la parcela en el supuesto de incumplimiento imputable al contratista, y en cambio sí preveían la incautación de la garantía depositada y la retención de la cantidad en metálico ofertada.

5.2.- Alegazioak.

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiaren aurreko ondorio hori, gure ustez, gehiegikeria juridikoa da, erakunde horren eskumen larregikeriaz gain eta ez du fiskalizazio-organo hori arautzen duen otsailaren 5eko 1/1988 zenbakiko Legearen babesik.

Eibarko udalaren jabetzako partzelaren salerosketa kontratua -partzela, udalerrri horretako Errebal kaleko 11. eta 13. zenbakietan zegoen- elkar ados jarrita moztu zena, Administrazio Publikoen Kontratuen legeko Testu Bateratuak eraentzen du, ekainaren 16ko 2/2000 zenbakiko Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa, izan ere, arautegi hori Sektore Publikoko kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/1997 zenbakiko legeak indargabetu bazuen ere, ostera, azken lege horren Lehenengo Xedapen Iragankorrak hauxe ezartzen du: legea indarrean sartu baino lehen adjudikatu edo esleitu ziren administrazio-kontratuak, ondorioetan, betetzean eta azkenean -iraupena eta luzapen araubidea ere barne- aurreko araudiaren arabera eraendu edo zuzenduko zirela.

Era horretan, aipatu berri dugun Administrazio Publikoen Kontratuen legeko testu bateratu horren 111. artikulua ezarritakora jo behar dugu, ekainaren 16ko 2/2000 Lege Errege Dekretuz onartutakoa, kontratua mozteko arrazoitzat hauek ematen dituen:

c) Administrazioa eta contratista ados jartzea.

Zentzu berekoa da gaur egun indarrean dagoen Sektore Publiko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen 206 c) artikulua.

Kontratua mozteko kasu horrek salbuespenezko izaera du, eta eskatzen duena da kontratistak ez uztea betetzeke bere kontratu-obligazioak eta kontratuaren jarraipena bidegabekotzat edo ez beharrezkotzat egiten duten interes publikoko arrazoibideak izatea exijitzen du.

Hau da: kontratua elkar ados jarrita mozteko ez da nahikoa Administrazioa eta kontratistak biak baietza ematea, horrez gain, legeak ezarritako bi arrazoi hauek ere bete egin behar dira:



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- kontratistari egotz dakioken beste arrazoirik ez izatea kontratua mozteko.
- Interes publikoko arrazoiek kontratua premiagabekoa eta desegoki egitea.

Baldintza bi horiek batera, aldi berean, gertatu behar dira elkar ados jarrita kontratua moztu ahal izateko.

Kontratistari egotzi ezin dakioken beste arrazoiren bat izateko eskakizun horrek hementxe du sustraia: elkar adostutako akordio baten bidez eta ez-betetzea kontratistak berak egindakoa izan bada, Administrazioak ezin dio ezetzik edo ukorik eman jasotzeko eskubidea duen kalte-ordainari.

Dena dela, kontratistak, aldez aurretik kontratua mozteko arrazoibidea ez den ez-betetze bat egiten badu, hau da: oinarrizko prestazioei eragiten ez dien ez betetze bat eginez gero, litekeena da, gerora, elkar ados jarrita kontratua moztea (Estatuko Kontseiluaren irizpena edo diktamena: 1984ko apirilaren 26ko 46236/1984 zenbakikoa).

Elkar ados jartze hori justifikatzen duten interes publikoko arrazoiak askotarikoak izan daitezke, baina, normalean, Administrazioari diru-aurrezpena ekartzen dioten arrazoibideak izaten dira, esate baterako, kontratistak, elkar ados jartzea onartzerakoan, administrazioak egindako ez betetze baten ondorioz legokiokeen kalte-ordainari ukoa edo ezetza ematen dionean edo obrarekin jarraitzeak Administrazioari gastu gehiago ekartzen dionean.

Halaber, elkar ados jartze hori ere onartu egin izan da kontratua moztea justifikatzen duten arrazoi teknikoak daudenean, edo, gaineratutako ezintasunagatik edo kontratua esleitu zenean zeuden inguruabarren aldaketa funtsezkoa izan denean (horixe izan zen Estatu Kontseiluak bere maiatzaren 16ko 404/1994 zenbakiko irizpenean edo diktamenean eman zuen erabakia, nazioarteko inguruabarren aldaketek, hornidura-kontratu baten adjudikaziodunen gaitasun gabetze teknikoa ekarri zuen kasu batean).

Administrazio-kontratuak elkar ados jarrita mozteko dagoen doktrina orokorra azaldu dugunez, hemendik aurrera erakutsiko duguna hauxe izango da: Errebal kaleko 11. eta 13. zenbakietan zegoen Eibarko udalaren jabetzako partzela baten salerosketa kontratua elkar ados jarrita mozteko erabakia zuzenbideari egokitutakoa izan zela.

Gai hau ebazteko orduan ezin garrantzizkoagoa da ekainaren 1eko 3928/1999 zenbakiko Estatu Kontseiluaren irizpena edo diktamena, "Eibarko Udaletxearen birgaikuntza II. Fasea" obren kontratua mozteko espedientearen ondorioz egindakoa.

Irizpen edo diktamen hartan –hain zuzen ere Eibarko Udalak egindako kontratu bati buruz ari dena- hauxe aipatzen da: kontratua elkar ados jarrita mozteko nahitaezko baldintza aldean nahia edo borondate bateratua datzala kontratua moztearen aldeko zer horretan.

Are gehiago: Irizpen edo Diktamen aipatu berri horrek dio, kontratua gauzatzeko edo egikaritzeko bilakabidea zaila izaten ari bada, interes publikoen kudeaketa onari kontratua azkentzea komeni zaiola .



Gaineratzen du: “kontratua moztea eta horren ondoren, gerora, beste hirugarren bati adjudikatzea, modurik eraginkorrena izan daiteke proiektuan –zeinaren gauzapena kontratatu den- egon daitezkeen zehaztasun ezak -horrelakorik balego- argitzeko.”¹⁰

Oraingo kasu honetan, aurrenik esan behar dena da, garbi dagoela aldeen borondatea edo nahi bateratua, Eibarko Udalarena, Alkate-Udalburuak adierazia, eta SPV Eibar Boulevard SL merkataritza-sozietatearena, biak ados zeudelako, SPV Eibar Boulevard SL merkataritza-etxeak Errebal kaleko 11. eta 13an zegoen udal jabetzako finka bat eskuratzeko egindako salerosketa-kontratua moztu behar izate horretan.

Bigarrenik esan behar dena da, dagoen administrazio-espeditatea aztertuta, ez dela ondorioztatzen, SPV Eibar Boulevard SLren aldetik alde zuzeneko aurretiko betetze ezik egin denik, hori, kontratuaren funtsezko prestazioei eragitearren, hura mozteko arrazoibide izango baitzen.

Alderantziz: hiru faktore nagusi izan dira, SPV Eibar Boulevard SLeri, Merkataritza Zentroaren, Azokaren edo merkatu plazaren eta Parking publikoaren, eraikuntzarekin aurrera egiten utzi egin izan ez diotenak 2007ko maiatzaren 22ko adjudikazio erabakiaren arabera eta 2007ko uztailaren 27ko salerosketako eskritura publikoaren arabera.

- Alde batetik, mundu osoko krisialdi ekonomikoa, finantzaren alorrean, eraikuntzakoan eta higiezinetan edo immobiliariarenean eragin handia izan duena; eta horrek eragina izan du baita lizitazio-xede izan zen partzelan egitekotan zegoen Merkataritza Zentroaren sustapenean ere; eta horrela, arazo larriak jarri dira agerian, egitekotan zegoen inbertsioa finantzatzeko Banku Entitate batekin egindako finantza-kontratua gauzatzen utzi ez dutenak. Horren erakusgarri da, hasiera batean SPV Eibar Boulevard SL Baldintza Orrietan ezarritako tramite eta prozesu guztiak betetzen joan bazen ere (Aurkeztu zituen agiriak: Eraispun Proiektua aurkeztu -2007/10/09-; Xehetasunezko Azterlana -2007/10/01-; HJP -2007/10/01- eta Urbanizazio Proiektua -2008-/02/07), ostera, 2008. urtearen hasieran bere jarduna moteldu egin zuen, hain zuzen ere krisia lehertu zenean.
- Bestalde, 137. Errebal Jarduketa Txertatuaren esparruko Birpartzelatze Proiektuaren onespina zalantzan jarria izan zen Eibarko Korporazioaren edo Udalbatzaren zati baten aldetik, eta horren adibide edo erakusgarri, proiektuaren behin-betiko onespeneren kontra 2009ko uztailaren 17an Ezker Batua-Aralar Koalizioa Udal Taldeak aurkeztu zuen berrazterketa-errekurtsoa, eta horren ondoren etorri zen administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Donostia-San Sebastián 3. zenbakiko Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean tramitatu zena 710/2009 zenbakiarekin.
- Eta azkenik edo hirugarrenik, garrantzizkoa da baita Errebaleko Merkataritza Zentroa eraikitzeke Aurreproiektua egin zuten arkitektoekin izandako arazoak, horretarako

¹⁰ Aipatutako Irizpenaren literalean zera esaten da: “El requisito fundamental para que se dé el mutuo acuerdo como causa de resolución contractual es la voluntad concurrente de las partes en orden a resolver el contrato, aunque subordinada a la inexistencia de causa de resolución imputable al contratista y a la concurrencia de razones de interés público, u otras circunstancias de carácter excepcional –debidamente justificadas-, que hagan innecesario o inconveniente la permanencia de la relación contractual”.



egiten ari ziren proiektuek egitura-bideragarritasunari dagokionez zalantzak sortzen zituztelako SPV Eibar Boulevard SLen; horren ondorioz, sustatzaileak arkitektoekin izenpetutako kontratuak moztu egin zituen.

Hiru arrazoi horiek ez ziren etorri SPV Eibar Boulevard SLren kudeaketa txar batetik: alderantziz, ezin zen horrelako inguruabarrik aurreikusi Eibarko udalaren eta SPV Eibar Boulevard SLren artean kontratua izenpetu zen une hartan.

